



Enpresak euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko diru-laguntzak baliatzen hasi dira / 2-4

AHT, 3. ibilbide proposamena

Nafarroako Gobernuak ministerioari aurkeztutako alegazioetan Bakaikutik Ezkiora jotzea proposatu du / 6

Irurtzundarrek udalaren 35.000 euro zertara bideratu erabaki dezakete bihartik 25ra arte / 9

Mank-en Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak bere logoa aukeratzeko lehiaketa deitu du / 7

Irurtzungo antzerki tailerrak "El estanco" antzezlanara lautuan taularatuko du asteburuan / 23

VIII. Altsasuko Copreci Duatloia bihar Altsasun: 10:30ean txikiak eta 15:45ean helduak / 14



Emakumeendako V. Lilasterketa proba ez lehiakorra antolatu dute igande eguerdian Altsasun / 15



Joseba Beltza Bengoetxea, Ana Arza Mazkiaran, Amaia Amiano Irizar, Jovita Moro Martin, Aitor Ruiz de Egino Ostiza eta Martin Mendinueta Lizarraga.

Euskara, jalgi hadi lantokira

Gure hizkuntza lantegietan bide egiten hasi da. Ez soilik langile euskaldunek euren artean euskaraz hitz egiten dutelako, baizik eta badirelako euskara enpresako beste lan ardatz moduan hartu dutenak ere. Altsasuko Kooperatiba da horren lekuko

Bernart Etxeparek *Lingua Vasconum Primitiae* liburua 1545ean argitaratu zuen. Idazlea euskarazko aurreneko liburua zela jabeturik hizkuntzari zuzendutako bi odarekin despeditu zuen lana. Haietako batean, *Kontrapas, euskara jalgi hadi plazara* irakur liteke. Olerkiari Xabier Letek musika jarriko zion eta haren bidez herriko bihurtu zen eta askok eta askok kantatu dugu ondoren.

Euskara munduaren plazara ateratzeko deialdia askotan egin da. Hizkuntza erabiltzea baita

hura bizirik mantentzeko eta herdoilik ez hartzeko modurik onena. Eta beste edozein hizkuntzaren moduan osasuntsu egon bada, bizitzaren arlo guztietan erabilia eta erabilgarria izan behar du hizkuntzak, baita lanean ere. Eta lantokietan ere bide egiten ari da euskara. Euskal Autonomia Erkidegoan Euslan programaren bidez eskarmentu zabala badute, Nafarroan euskara lan munduan sartzeko esperientziak berriak dira, baina foru erkidegoan bidea egiten hasiak dira. Sakanan ere bai.

Ibarreko esperientzia bat

Altsasuko Kooperatiba 50 bat langilek osatzen dute eta Copreci taldekoa da. Kooperatiba mistoa da, Altsasukoko kooperatibistek eta Mondragon, Componentes e Inversionesek osatuta. “Urte asko dira Coprecin euskara plana indarrean dela. Diru bat zutela eta kontseilu errektoretik proposamena jaso genuen” azaldu digu zuzendaritzako Amaia Amiano Irizar. “Euskara lantzeko behar bat ikusten genuen eta hemen gaudela”, esan digu Martin Mendi-

nueta Lizarragak. Haiek eta beste lau langilek osatzen dute kooperatibako euskara batzordea, hilean behin biltzen dena. Haiekin martxoko bileraren ondoren izan ginen.

Baiezkoa eman ondoren, Ana Arza Mazkiaranek azaldu digunez, “lehen-lehenik Emun kooperatiba kontratatu genuen eta lantegian euskarak duen egoeraren diagnostia egin genuen. Langile guztien euskararen ezagutza aztertu zen. Hori da abiapuntua”. 2015ean izan zen hori. Emuneko teknikari Joseba Beltza Bengoetxea etxarriarrak azaldu digu kooperatiban euskarak duen egoera orokorra: “euskararen ezagutza ez da oso handia, laurdunek edo dakite. Baina lantokian euskarari tokia egiteko motibazio handia dago. Batez ere idatzian. Hitz egitearena, dagoenarekin, zailagoa da. Baina aurre-motibazio bat badago”. Izan ere, hizkuntza ez dakiten langile gehienak euskaltegitik pasatutakoak direla gaztigatu digute, eta begi onez ikusi dute euskararen inguruko plangintza kooperatiban ezartzeko ekimena.

Asmo guztiak Euskara Planean jaso zituzten. Lau ardatz ditu plan horrek: euskararen erabilera sustatzea, hizkuntzaren ezagutza handitzea, euskararen aldeko motibazioa mantentzea edo handitzea eta egiten den guztia erakunde mailako lana bihurtzea. “Gertatzen da, segun zein Euskara Plan, enpresa askotan bere lanak independente edo autonomo balira bezala joatea. Egiturak ekartzen dituen arauekin nahikoa harremanik gabe. Altsasukoren kasuan ardatz guztiak landu dira”, azaldu digu Beltzak.

Mendinueta azaldu digunez, “prozesuaren arabera, euskara jakitea baloratzen dugu. Bere garrantzia badu”. Izan ere, kooperatiban arautua dute lan esku zuzena hartzearena, bat zerrenda, eta, besteak beste, euskara jakitea baloratu egiten dute. “Langile berri gehienek euskara badakite. Dakitenen artean euskaraz hitz egiten dute. Pixkanaka euskara ezartzen ari dela sumatzen da”, azaldu du Arzak. Aurretik gaztelaniaz zeuden lan dinamika batzuk langile berrien sarrerarekin aldatu direla gaineratu du. “Pixka bat dakigunok hitz egiten hasi beharko dugu. Hori da egin dezakegun pauso garrantzitsuenak”.

Amianok gogoratu du Gipuzkoatik enpresara duela lau urte iritsi zenean topatu zuena: “euskara ederki zekien jendeak gaztelaniaz hitz egiteko ohitura zuen. Ni euskalduna naiz, baina ez nekien euskara zekitenik. Baina jakiten duzun unetik aurrera harekin harremana euskaraz da. Eta Arzak dio ez dakiela, baina asko ulertzen du”. Mendinueta esan digunez, “batzuek euskaraz hitz egiten dugu, beste batzuek ez. Normalizazioa bilatzen ari gara, denok euskara bultzatzea, euskara gehiago erabiltzea”. Horretan ari dira batzordean.

Batzordeaz

Kooperatibako euskara batzordearen egitekoa enpresaren



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLEOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Euskara Plana aurrera ateratzea da. Beltzak berak azaldu digu nola: “planaren barruan, urterako kudeaketa plana proposatzen die zuzendaritzari eta kontseilu errektoreari. Hura onartu eta han jasotzen dena aurrera eramateaz arduratzen da. Batzordeak eragin eta proposatzen du”. Sei bazkide-kooperatibistek osatzen dute euskara batzordea, tailerretako bostek eta zuzendaritzako batek. Hizkuntza dakitenak eta ez dakitenak.

Euskararen ezagutza kontuan izanik, hizkuntzaren erabilera-ri dagokionez, idatziari erreparatu diote gehien bat orain arte. Ardatz horren barruan dago Mezularia izeneko egitasmoa, euskara idatzia hobetzea helburu duena. Ezagutzari dagokionez, matrikulazio kanpainaren bat egin dute. Aurreneko urteetan “jendea motibatzen” zentratu dira, “bai enpresa mailan Euskara Plana babesteko, bai parte hartzea sustatzeko”. Hilean behin elkartzen da euskara batzordea. Han erabakitakoak bakoitzak bere orduetan egiten ditu.

Batzordean hartzen diren erabakiak enpresako langile guztiei iritsi behar zaie. Euskara batzordearen eta zuzendaritzaren arteko lotura Amianok egiten du. Adibidea jarri digu: “Euskararen Eguna antolatu dugu eta zuzendaritzari eskatuko diogu ogitartekoa jateko ordu laurdena ordu erdira luzatzea. Harreman hori nire kontu dago. Mendinuetak Mondragon taldeko Nafarroako lantegien euskara batzordearen bileretan parte hartzen du. Gainontzekoek euren ekarpena egiten dute, denen arteko lana da”. Bazkideen batzarrak, batzar nagusiak eta Euskararen Eguna antolatu dugu batzordearen martxaren berri emateko ere baliatzen dituzte.

Emuneko teknikariaren papera ere nabarmendu dute batzordeko kideek: “berak gidatzen gaitu. Ez genuen inolako esperientziarik. Berak edo guk proposatzen dugu. Denok egiten ditugu gauzak” esan du

"NIRETAKO GARRANTZITSUA DA NIRE HIZKUNTZA ENPRESAN ERE BABESTEA"

Arzak. “Kanpo agente bat da eta perspektiba du”, dio Amianok. “Gu hasiko bagina, egunerokoak jango gintuzke. Gaur lanez gainezka gaude eta bihar eginen dugu...”, azaldu du Arzak. “Ez gara teknikoak. Eguneroko lanari begira gaude, beraz, dakien baten premia dago” gaineratu du Mendinuetak. “Berak gidatzen gaitu. 09:30erako konpromisoa hartu duzunean, ezin duzu esan lanez gainezka zaudela. Etorri da, zain dago. Horrek zaintzea ekartzen du”, Amianoren aitortza.

Bidea

Diagnosiarekin hasi ziren 2015ean. 2016an Euskara Plana ezarri zen. Aurreneko bi urteetan Altsasuko Kooperatibako plangintza urte erdikoa bazen, 2017an urte osoko plangintzarekin hasi ziren eta hala jarraitzen dute aurtien ere. Egitasmo ugari egiten dituzte plana aurrera eramateko, esaterako: abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatzen dute kooperatiban; kafe makinaren ondoan hilero esera bat jartzen dute; postal lehia-keta antolatzen dute; Korrikako kilometroa erosten dute; haiek sortu eta lantegi guztian banatzen den buletin elebiduna argitaratzen dute hiru hilero; aurtien kanta bat sortu nahi dute... “Gure batzarretan irudi bidez egiten diren aurkezpenak, asko Coprecitik heldu direnez, euskaraz dira. Batzarrean euskararen presentzia altua da”, argitu digu Amianok.

Lantegian euskara klaseak emateko nahikoa jende ez dagoenez, hizkuntzan trebatzeko beste bideak bilatu dituzte. Hor dago Mezularia egitasmoa. Haren bidez euskara dakiten bost langilek testuak idazten dituzte hamabostean behin. Beltzak jartzen die gaia eta idatziak hari bidaltzen dizkiote eta zuzenduta bueltatzen dizkie. Idazleen artean dago Aitor Ruiz de Eginostiza eta “askatzeko modu bat” dela azaldu du, “dena ulertzen dut, baina hitz egitea gehiago kostatzen da. Honek laguntzen du; ahaztutakoak gogorarazten dizkizu”. Beltzak zuzenketak langile bakoitzaren mailaren arabera egiten ditu.

Nafarroako Gobernuak lantoki pribatuetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko laguntzak emateko deialdia egin

zuen estreinakoz joan den urtean. Altsasuko Kooperatibak eskaera aurkeztu eta diru-laguntza jaso zuen. Harekin errotulazio ofiziala aldatu zuten. “Enpresan ditugun hainbat errotulurekin zerrenda bat egin genuen. Gaztelaniaz zenbat zeuden jakiteko. Horiek euskaraz edo elebitan jartzeko eskatu genuen laguntza. Emunen teknikariaren kostua ere sartu genuen”. Errotuluak aurki jarriko dituzte.

Aurtien ere diru-laguntza deialdian eskaera eginen dute. “Joan den urteko deialdian, batez ere irudi kontuetarako zen diru-laguntza. Aurtengo deialdian Euskara Plan batean egon daitezkeen hainbat egitasmorako laguntza sartu dute. Guk horien guztiendako laguntza eskaera sartuko dugu”, esan digu Beltzak.

Altsasuko Kooperatiba hurrengo lau urterako plan estrategikoa egiten ari da eta han euskara, lau ardatzak, sartu dituztela azaldu digu Amianok. “Enpresak euskara ezartzen eta normalizatzen segitzeko asmoa dauka”. Etorrizunean hizkuntzari lotuta gauza gehiago etor daitezkeela gaineratu du. Eta horietako bat hizkuntza teknikoarena da. Izan ere, euskara jakitea kontu bat da baina lanpostuan batzuetan hitz jakin batzuk behar izaten dira. Halako kasuetan, “ahal den bezala” moldatzen direla esan digu Mendinuetak. Beltzak azaldu digunez, “oraindik ez gara kontu horietan sartu, baina lantoki askotan enpresa barruko hiztegi propioa egiten da, haietan dauden hitz klabe edo hitz teknikoak jasotzen dituenak. Horretaz oraindik ez dugu sekula hitz egin”. Mendinuetak borobildu du: “oraindik beste nibel batean gaude”.

Bitartean Euskaraldia moduko ekimenak enpresara nola eraman pentsatzen ari dira. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egunez euskaraz hitz egiteko gonbidapena egin digute euskal herritar guztiei. “Aurretik probako egun bat eginen dugu, nola moldatzen garen ikusteko”, azaldu digu Beltzak. Erabilera “arrankatzeko” aitzakia izan da. “Kafe garaian 15 minutu egiteko aukera proposatu genuen joan den urtean, baina Euskaraldia atera zenez, bat egitea erabaki genuen”.

Osorik: www.guaixe.eus

Gobernuaren diru-laguntza

Nafarroako Gobernuak lantoki pribatuetan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko laguntzak emateko deialdia onartu du. 80.000 euroko poltsa du deialdiak. Lantokietan aurtien eginen diren hizkuntzaren aldeko jarduerak laguntzeko da deialdia. Nafarroan dauden lantokien titular diren pertsona fisiko eta juridikoek eska dezakete diru-laguntza.



Lakuntzako lantegiak. ARTXIBOA

Deialdira aurkeztu daitezke euskara plana egin dezaketen enpresek, hura garatzeko ekintzak egin nahi dutenek eta entitatean edo lantokian euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko balio dutenak. Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 3an despedituko da. Eskaerak telematika bidez aurkeztu behar dira, Nafarroako Gobernuak Interneten duen atariaren izapideen katalogoko fitxa erabiliz.

"Euskararen erabilerarako aukerak ugaltzeko premia dago"

IZASKUN ERRAZKIN BELTZA MANK-EKO EUSKARA TEKNIKARIA

Zein garrantzia du euskarak lan munduan sartzeak?

Oso garrantzitsua da, gizarte erabilera hizkuntza baten bizitasunaren seinalea baita. Azken hamarkadetan euskararen ezagutzak igoera nabarmena izan du, baina beharrezkoa da igoera hori erabilerara eramatea. Euskararen gizarte erabilerarako aukerak ugalduta eta espazioak sortzeko premia dago. Hor sartzen dira aisialdia, merkataritza eta, nola ez, lan mundua.

Gaur egun Sakanan zenbat enpresa dute euskara plana?

Altsasuko Kooperatibak badu euskara plana. Agian badago beste enpresaren bat ere, baina Euskara Zerbitzuan ez dugu horren berri. Badira euskara plana izan gabe euskararen erabilera



Izaskun Errazkin. ARTXIBOA

urratsak eman dituzten enpresa gehiago: errotuluak euskaraz jarri dituztenak, bezeroekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzen ari direnak, barne harremanetan euskarari lekua egiten ari direnak...

Mankomunitatek zein laguntza eskaintzen duzue?

Batetik, Euskara Zerbitzuak errotuluak euskaraz jartzeko

diru-laguntza deialdia du. Diruz laguntzen dira errotuluak, toldoak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsez idatzita dagoenari gastuaren %50 ordainduko zaio (gehienez ere 500 euro), eta euskaraz eta gaztelaniaz dagoenari %25, beti ere euskaraz lehentasuna badu (gehienez ere, 250 euro). Ikus deialdia Manken web orrian. Bestalde, Sakanako enpresari, merkataritza eta ostalariek Mankomunitateko Itzulpen eta Zuzenketa Zerbitzua erabili dezakete doan. Jendaurreko testuak itzultzen dira. Informazio gehiago Manken web orrian. Azkenik, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak enpresetan euskararen erabilera sustatzeko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza deialdira aurkeztu nahi duten Sakanako enpresei aholkularitza eta laguntza eskaintzen die.

"Euskararena proiektu kolektibo bat da"

ANAJE NARBAIZA ALDAI ELAY ENPRESAKO LANGILEA

Antzuolako enpresan 230 langile inguru dira. 25 urteren ondoren enpresaren lan hizkuntza euskara da. Egiarretan aski ezaguna den Anajek prozesuren berri eman digu

EGIARRETA

Zuek enpresa erabat euskalduntzea lortu duzue?

Bai, gure lan hizkuntza euskara da. Enpresaren eta langileen artean erabaki hori hartu zen 1991n. 25 urteren buruan lortu dugu. % 35ek ez zuten ulertzen, batzuk ordezkatu dira eta beste batzuk ikasi dute. Enpresa ere hazi da. Euskaraz lan egiten dugu. Gure egunerokoan, edo-zertarako, euskara presente dago, esaterako, gure azpikontratazioekin erlazioa. Bezeroekin haien hizkuntzan egiten dugu: italiarra bada, italieraz; aleman bat, alemanez; frantziar bat, frantsesez; Txina eta bestelako tokietan ditugun harremanetan, normalean, ingelesa. Baina saiatzen gara gure bezeroek eskatzen diguten hizkuntzara hurbiltzen. Hori euskaratik ikasi dugu. **Euskara Planarekin hasi zinetenean enpresa handia eta urte batzuetako martxa zenuten. Hor inertzia batzuk izanen ziren?**

Horiek dira aldatzen nekezak. Gaur egun ere horiek dira aldatzea pittin bat kostatzen zaizkigunak. Txikitako koadrilatik erdaraz elkar ezagutzen dutenak. Nahiz eta jende berriarekin aritu eta bertako hizkuntza ohiturak aldatu, hizkuntza ohitura zaharrak, lehendik datozenak, familiatik datozenak, esaterako, koinatuak direlako... horiek aldatzea asko kostatzen da. Baina egunerokoan informalean ohitura horiek aldatzea nekeza den moduan, formalean aldatzea oso erraza da. Orduan, inork ez du zalantzan jartzen lan bilera batean euskaraz hitz egin behar denik. Hori bai, handik irten eta kafe makinan haien artean erdaraz hitz egiten dute. Hori ere horrela da.

Nola hasten da enpresa bat euskalduntzen?

Nahi izatea. Eusko Jaurlaritzak 1990-1991 inguruan lideratu zuen plan pilotu bat izan zen. Gu la-



Elay enpresako langileak ekitaldi batean. UTZITAKOIA

"ENPRESARI EUSKARA BERRESKURATZEA SEKULAKO INDARRA ETA KOHESIOA EMATEN DIO"

guntzen Elhuyar enpresa sartu zen. Diagnostika egin zuen eta egoera zein zen aztertu zuen. Haiek lagundu ziguten. Baina oso mugarririk inportante izan zen aurkeztu zenean, bai langile batzordeak bai enpresa buruek ere bat egin zutelako aurrera eramateko. Gauza natural gisa planteatu da hizkuntza plana. Hasieratik helburua jarri zaio: euskaraz lan egin nahi dugu. Gure barruan ez da sekula egon gauzak elebidun jartzearena. Premia egon denean gauzak itzuli ditugu. Baina itzulpenarena, nolabait, lorpen bat izan da. Hau da, gauzak aldatu direnean, hizkuntzaz aldatu dira, erdaraz egotetik euskaraz egotera, jendeak ulertzen zuelako. Hasi ginenean 165 bat langile geunden. % 35. Pentsa, jende asko ikasteko zegoen, baita alfabetatzeko ere; nahiz eta eus-

kaldun petoak izan jendea irakurtzen ez zegoen batere ohituta. Orain gauzak bestelakoak dira: jende gehienak euskaraz daki eta, gainera, alfabetatua da. Egoera kaxkarrean indar handia zuen nahi izateak. Jendeak argi ikusi zuen atzeko belaunaldiak euskaraz hezita zetozela. Ez zen inolako arazorik izan enpresak helburu horri baietza emateko eta bera izateko proiektu honetako liderra.

Eta behin euskara laneko hizkuntza bihurtuta, zer?

Elayk ezin du euskaraz lanik egin baldin eta bere ingurukoek euskaraz lanik ez badute egiten. Orain gure zeregina da gure lan hizkuntza gure hesietatik harago joatea. Hau da, guk dauzkagun kanpo harreman guztietara zabaltzea. Eta naturaltasun guztiarekin erabiltzen ikasi behar dugu. Administrazioarekin, eskolekin, guri lanak egiten dizkiguten enprekin, bertako bezeroei ere jakinarazten diegu gurekin euskaraz egin dezaketela...

Euskarak zer ekarpen egiten dio enpresa bati?

Alde batetik, sinesgarritasuna. Ezer ez dagoen tokitik hizkuntza

bat berreskuratzea; proiektua gauzatzeko gauza izatea. Proiektu kolektibo bat da. Horrek sekulako indarra eta kohesioa ematen dizkio kolektiboari berari. Beste faktore bat eskaintzen du: hori egiteko gauza bagara, beste hainbat gauza egiteko gauza gara. Erabilerak berak bakarrik ekartzen ditu aurrerapausoak. Pertsonen aurrerapenak motibazio iturri bihurtzen dira. Eta enpresa batek jendea lanean pozik egotea nahi badu, zerbait gehiago izatea eta onena ematea, motibazio iturri horiek ongi kudeatu behar dira. Kudeaketa horrek lan giro egokiagoa eta hobe ekartzen du.

Lantegian egindako lanak Antzuolan eragina izan du?

Bai, izugarria. Gurera lanera etortzen diren pertsonak euskara ezagutu behar dute. Beste bi enpresa handi daude, Goizper eta Erreka, planak martxan jarri zituztenak. Lan munduan Antzuola euskalduna da. Ez da bakarrik Elayren eragina. Gauza askorena da. Sentsibilizazioa zabaldu behar da eta herriak berak ekarri du bertako enpresetan euskara nagusi izatea.

Prozesua hasi berri duen enpresa bati zer aholkatuko zenioke?

Ez izan beldurrik. Jokatu hizkuntza normal bat balitz bezala. Bizi dugun egoerarengatik, bi hizkuntza oso handi ondoan izatean, bai frantsesa bai gaztelania, euskara txikitxo moduan, pixka bat, baimen eske moduan ibiltzen da. Ez ibili baimen eske. Ezarri eta erabili lasaitasunez. Nire iritiz ikasbiderik potenteena izan da.

Norberaren hizkuntza denetarako balio duela, ezta?

Bai, ongi pasatzeko, lanerako... Naturaltasunez erabilia. Ez du balio pixka bat ezkutuan ibiltzea. Gu ezkutuan bagabiltza eta gure hizkuntza kalera naturaltasunez ateratzen ez badugu, ezkutututa geldituko da. Gu izan behar dugu gure hizkuntzaren bozeramaileak. Sakanako enpresei zortetik onena. Bidea luzea da. Behar bada egoera linguistikoa ez da izanen gurean baino txarragoa. Lortuko dute. Aurrera segitzeko. Kriston pozak hartuko dituzte bidean. Askok ikasiko dute elkarrekin. Animo. Benetan. Gure inguruan enpresa euskaldunak behar ditugu, lana euskaraz egitea gero eta errazagoa izan dadin.

Osorik: www.guaixe.eus



"Langileen babesa egon behar da"

JOSEBA BELTZA

EMUNEKO TEKNIKARIA

Zein da zure egitekoa Altsasuko Kooperatiban?

Niri dagokit urte osoko gestio planaren gaineko dinamizazioa egitea. Horren barruan garrantzitsua da euskara batzordea dinamizatzea eta bertan erabakitzen direnak aurrera eramateko lana egitea.

Enpresan euskara planak aurrera egiteko zer behar du?

Langileen babesa egotea, gero langileak izanen direlako lan horietako asko eginen edo biziko dituztenak.

Nola sartzen da euskara enpresa batean?

Denbora hartuta, hasteko. Guk Emundik beti metodologia bat eskaintzen dugu. Plan hori enpresak berak bere beste arloak bezala, bere egitea eta erabaki arlo bat bihurtu behar du.

Euskararen bizi berritzean lantegiak beste pauso bat dira?

Bai. Lan mundua guretako egunero erdian dugun zerbait da. Adibidez, hezkuntza eta aisialdia euskalduntzeko saiakera handia egiten da. Gero, ikastetxeetatik euskara ikasita atera diren ikasle horiendako ere lan mundua oso erdalduna izaten da. Ez du jarraipen handirik. Honi ere heldu behar zaio.

Osorik: www.guaixe.eus



ASTEKOA

RAF ATXURI

Futbolraziaren koxka zorrotzak eta zulo beltzak

Azken asteotan futbolzale batzuen arteko iskanbila eta istilu larriek "hooliganismo"aren gaia ekarri dute lerrobuetara eta sare sozialen hizpide nagusietara. Ertzain baten heriotzak San Mames ondo-ondoan piztu ditu alarma gorriak berriz eta predikatzaile zuri askoren suzko eta itzurakeriazko berba parrastak zabaldu ditu lau haizeetara

Ez da, baina, futbolraziak eragin duen lehen heriotza, ezta hurrik eman ere, eta azkena ere ez da izango. Ohituraren ohiturak egiten gaitu, hainbat gertakizun albokaltzetat hartu eta hartzen ditu gizakiak, eta futbolaren inguruan egosi eta egosten den indarkeria muturrekoa onartu eta onartzen dugu.

Futbola XX. mendeaz geroztik kirola izatetik industria erraldoi, erlijio eta masa-terapia eta autolaguntza ariketa izatera pasatu da. Erlijio berria, bai, haren jainko(sa) handi eta ttipiekin, deboziobide, erromeria eta meza oparoak bihotzen altxagarri izaki. Garizuma, penitentziak eta Erramu igandeak barne. Goiko aldareetan santuak, heroiak eta martiriak nahasten dira ezinago eder eta hunkigarri, sinestunen otoitz, negar, sufrikario eta estasiaren aurrean.

Baina ez dezagun geure burua engaina, badira beste jainkotasun batzuk gorenagoak; berauek dirua eta espektakulua deitzen dira eta futbola hartu dute menpeko eta bidelagun. Izan ere, futbola halako ikuskizun osoen bihurtu zuten, baita diru-ekarbidet erraldoia. Indarkeria muturrekoa, zer eginen diogu ba, "show"aren hornigarri bikaina gerta daiteke, eta zer eginen diogu ba, audientziaren kopurua igotzen du, beraz, diru-sarrerak gehitzen ditu, beraz, dena barkagarri. Indarkeria hori, gainera, ez da hooliganen monopolioa, hainbat jokalarri, kargudun, enpresaburu eta kazetari (José María García "Butanito" beti gogoan) aritu dira zeregintsu, grina merkeen hauspotzaile milioitxo batzuen truke antzerki latz honetan.

Bitartean tarteka munstroa esnatzen da aztoraturik eta ero. Arazoa ez da futbola, futbolrazia baizik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Xabier Reyri

JOSEBA BELTZA

Oharrak eta datak buruan, edo, papertxoren batean, eta, papertxoa galtzerdien barruan, oin-zolan. Lagunen batek jarraipenak ditu, telefonoak, ordenagailuak kontrolaturik daude, jende ezezagunarekin mesfidati. Autoan atzera begira, atzeko autoa atzean noiz arte eta zein lekutaraino dagoen jakiteko. Sarekada baten berri izan eta atxilotuen zerrendan izen gehienak ezagutu. Tortura testigantzak irakurri.

Gutunak idatzi, bisitetara joan. Kartelak presaka jarri. Aldarri nimitoena idazteko pankartak egiten gomazko eskularruak erabili. A eta B planen manifestazioetara joan. Kontrolak listua irentsiz gauditu. Laster egin. Oihukatu. Ezkutatu.

Bilera batzuetan topo egin. Jaialdi, manifestazio batean elkar ikusi, irribarretsu agurtu. Konplizitatea.

2008ko udazkenean Belexe irrastian sarekada askoren berri eman behar izan nuen. Nafarrak ziren detenituetako asko, Iruñerrikoak gehienak. Xabier Rey urrian atxilotu zuten beste hiru nafarrekin batera.

Zure argazkia ikusita ematen du berriz topo egin eta gu agurtzen ari zarela, Xabier.

Ez dakit nolako zinen. Zure izena entzunda ez zintzaizkidan lehen kolpean burura etorri. Banekien Puerton eduki zintzutea, ez nengoen ziur Puerton zinduzkatenik oraindik. Banekien kondena luzea jarri zizutela.

Zutaz ezer gutxi jakin arren lotura bat bada erdi klandestino erdi agerikoa, sendoa urteak igarota ere.

Agur eta ohore, Xabier. Besarkada bana senideei, lagunei eta errepresaliatu politikoei.

GUTUNA

Emakumeak eta kartzela

AIZAGA ZEBERIO PETRIATI ARBIZUKO PRESO ETA IHESLAYEN ALDEKO TALDIA

Martxoaren 8a igaro berri den honetan, momentu egokia iruditzen zaigu euskal emakume preso politikoen egoera salatzen. Emakumea izatea bizitza arruntan berez zaila bada ere, are gehiago zailtzen da konpromiso politikoa edo militante sakonak daudenean. Zer esanik ez konpromiso horienatik espetxeratzen zaituztenean.

Emakumeak haientzako pentsatuak izan ez diren espazioetan espetxeratzen dituzte. Presondegiatiko legedian ere "ez-leku" batean aurkitzen dira, ez baitituzte

aipatzen amatasunaz edo haien balizko "izaera ezberdina" aipatzeko (hilerokoa, haurdunaldia ...) ez bada.

Zigor laukoitza jasaten dute: Soziala: delitua egiteagatik bakarrik emakumeei ezarritako genero-rolkin (esaneakoak izatea, ezarritako arauak betetzea...) apurten delako. Pertsonala: familiarekiko banaketa, baina, batez ere seme-alabekiko banaketa oso traumatikoa izaten da ama-alaba/ seme gehientzako. Penala: emakumeen kondenak betetzeko baldintzak gogorragoak dira. Eta laukoitza: EPPKko kideak normalean FIES-3 izaten dira, eta horrek euren komunikazioetan eragiten die. Emakumeek pairatzen duten isolamendua handiagoa da. Emakume preso politikoen

dispertsio-egoera bizi dute, hain zuzen ere, haientzako egokitutako kartzelak ez direnez, sorterritik urrun dagoen beste kartzela batera bidaltzen dituztelako.

Euskal emakume preso politikoen bizi duten egoeran sakontzeko "Emakumeak eta kartzela" mahai-ingurua antolatu dugu Arbizun. Mahai-ingurua gaur, martxoaren 16an, ostirala, arratsaldeko 18:00etan izanen da Udaleko Batzar Aretoan. Bertan, honako hauek hartuko dute parte: Oihana Etxebarrieta "Borroka armatua eta kartzelak" liburuaren egileetako bat; Anitz Eskisabel, preso ohia, Ainara Ladron, preso ohia eta Maitane Intxaurrea, preso ohia.

Honenbestez, sakandar guztiak bertan parte hartzera gonbidatzen ditugu. Erasorik ez, erantzunik gabe!

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxebarria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Gobernuak AHTrako 3. proposamena egin du

Sustapen Ministerioari aurkeztutako alegazioetan Nafarroako Gobernuak proposatzen du Euskal Yarekin lotura Ezkio-Itsason egiteko aukera aztertzea, horretarako trenbideak Bakaiku paretik iparralderantz joko luke


SAKANA

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) Nafarroako eta Euskal Yaren arteko lotura egiteko bi proposamen aurkeztu zituen Sustapen Ministerioak: Sakana zeharkatuz lotura Gasteizen egitea eta bestea Altsasura arteko trenbidea eta Ezkio-Itsason lotzea. Nafarroako Gobernuak astelehenean jakinarazi zuen alegazio epean beste proposamen bat aurkeztu duela: AHTko trenbidea Bakaikuraino iritsiko litzateke eta handik iparralderantz joko luke Ezkio-Itsason Euskal Yarekin lotzeko.

Gobernutik azaldu dutenez, "aukera hori bere garaian kontuan izan zen. Maldaren gradu baldintza betetzen du eta, gainera, tunelaren luzera laburtuko luke". Foru administratibotik azaldu dutenez, Kantauri aldera ateratzeko aukera guztiak aztertzea nahi dute, eta haiek gaitasun egokia izatea, "azpiegitura garestia baita eta urteetan zerbitzua eman behar baitu".

Alegazio gehiago

Nafarroako Gobernutik ministerioari "puntu batzuk sakon aztertzeko" eskatu diote. Batetik, Gasteizko loturaren alde egiten bada, Gasteiz eta Bergara arteko zatiak tren garrariorako nahi-



Beltzez, egungo trenbidea. Urdinez, gobernuarena. Besteak, ministerioarenak.

koa gaitasuna lukeen argitu nahi du foru administratibotik. "Zenbait aurreikuspen beteko balira saturazio maila gehiegikoa litzateke aurki. Gaitasun faltak merkantziak trenez modu lehiakorrean eramatea mugatuko luke". Gobernuak karga eta fidagarritasuna aipatzen ditu puntu horretan.

Nafarroako Gobernuak bere alegazioetan dio ez direla egoki baloratu Gasteizko loturako zenbait faktore (inbertsioa, ibilera denborak, eskaera, zenbait ingurumen elementu, manten-

tzea, eta errentagarritasun sozio-ekonomikoa) eta hori Ezkioko aukeraren kaltetan izan dela. Horregatik, gobernuak ministerioari bi alternatiben balorazioak errebisatzeko eskatu dio.

EH Bildu eta I-E alegazioen kontra daude. PSN alde. Eta PPK aurretik ez jakinaraztea kritikatu du.

Plataformakoak Parlamentuan

Sakana Trenaren Alde plataformako kideek euren tren sozialaren aldeko proposamena aurkeztu zuten Nafarroako

Parlamentuko Ekonomia Garapenerako Batzordean herenegun. Martin Zelaiak egungo trenbidea hobetzea eta Europako estandarretara egokitzeko beharrezko lanak egitearen alde azaldu zen. Horrela bidaiari eta merkantziendako gaitasun handiko trenbidea lortuko litzatekeela defendatu zuen, eta azpimarratu egungo trenbidea bikoizteko prest dagoela. AHTko ibilbideak ez duela ekarpenik egiten gaineratu zuen. Baita, egungo trenbidea egokitzea ere ez dela aztertu.

Zelaiak zalantzan jarri zuen AHT bidez merkantziak garraiatzeko aukera izanzen zenik. Bestetik, unibertitate azterketa bat aipatuz nabarmendu zuen hura eraikiko balitz, prozesu horretan sortutako kutsadura, CO2 isuriak, 100 urtetan ez liratekeela bere onera bueltatuko. Hala, proiektuaren ingurumen onurak zalantzan jarri zituen. AHTren sustatzaileek soilik hiriburuak kontutan hartzen dituztela eta ez herrietako biztanleen mugikortasun beharrak nabarmendu zuen.

Aingeru Mikeok, bestalde, Espainian azpiegituren planifikazio falta dagoela gaztigatu zuen. Haiek politikariei komenigarri zaielako egiten direla esan zuen. Eta azaldu zuenez, European Spainia da AHTko km gehien duen eta lineak errentagarriak ez direla nabarmendu zuen. Horrek estatua eta Adif enpresa zorpetu besterik ez dituela aipatu zuen. Egungo trazadura bikaintzeko eskaera berrestarekin batera, ibilbide proposamenak sakandarren artean "kezka eta alarma" sortu zituela jakinarazi zien parlamentariei.


Horiek ere hitza hartu zuten. Geroa Baiko Rafael Eraso AHTren alde azaldu zen, "Nafarroako ekonomia garapeneraren onerako delako. Sakandarrek salatuak ibilbidearen eraginak zuzentzearen alde agertu zen eta 100-150 urterako tren berria zela AHT gaineratu zuen.

EH Bilduko Dabid Anautek sakandarrekin bat egin zuen, gizarte, ekonomia eta ingurumen arrazoiengatik. Eta AHTri buruzko eztabaida eskatu zuen. Ahal Duguko Carlos Cousok aldarrikatu zuen Nafarroak konektibitatea behar duela, ez abiadura. Mugikortasun jasangarriaren alde egin eta AHTak ez dituela egituratzen salatu zuen. I-E Marisa De Simon egungo sarea hobetzearen alde azaldu zen. Eurek ere alegazioak aurkeztu zituztela jakinarazi zuen. UPNko Carlos Garcia Parlamentuan AHTren alde gehiengo zegoela aipatu zuen. Sakandarrek aipatutakoak AHT ibilbidea hobetzeko balioko zuela esan zuen. PSNko Guzman Garmendiak AHT Nafarroaren onuragarria dela esan zuen. Egungo trenbide sarea berri beharra dagoela nabarmendu zuen. Altsasun aurreikusitako logistika guneak lanpostuak sortuko zituela gaineratu zuen. PPKo Javier Garcia AHT lehenbailehen iristearren alde azaldu zen. Hori ere tren soziala ere badela azaldu zuen, "denok erabil dezakegulako".

NAFARROAKO GOBERNUAK IBILBIDE AUKERA GUZTIAK AZTERTZEA NAHI DU EGOKIENA HARTZEKO

Esataria: Mainer Gaurko gaiak:

- Altsasuko Kooperatibaren Euskara Plana
- Enpresa euskaldundu bateko lekukotza
- Urdiango euskara ikastaroko ikasleak



Ostiralero 9:30ean
SAIOA

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

belexe
107.3 FM
guaixe.eus-en ON LINE



Ezkerrean, Bego Zestau eta eskubian, María Saez de Albeniz, logotipo lehiaketaren aurkezpenean.

Anitzartean zerbitzuak irudia behar du

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuak logotipo lehiaketa antolatu du, zerbitzuaren marka edo irudia aukeratzeko. Apirilaren 4ra bitartean aurkeztu daitezke proposamenak

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuari irudia emango dion logotipo lehiaketa aurkeztu zuten asteazkenean aipatu zerbitzuko teknikari Bego Zestauk eta zerbitzuko batzordeko buru María Saez de Albenizek. "Zerbitzuak lehen Immigrazio Zerbitzua izena zuen eta aurreko urtean izena aldatu genion eta Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzua da ordutik, anitzen artean kudeatzen dugulako kultur aniztasuna. Eta kontuan hartuta aurten zerbitzuak 10 urte betetzen dituela, izen berria eta urteurrena lotuaz, gure zerbitzua identifikatuko duen logotipo bat sortzearen bidean logotipo lehiaketa antolatu dugu" aipatu zuen Bego Zestau teknikariak.

Zerbitzuaren baloreak islatu beharko ditu

Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuko logotipoa izango dena

aukeratzeko lehiaketan 16 urte-tik gorako edonork parte har dezake, sakandarrek eta Sakanatik kanpokoek. Logotipoak Anitzartean zerbitzuaren kudeaketan lantzen diren baloreak hartu beharko ditu kontuan: aniztasuna, berdintasuna, diskriminazio eza eta errespetua. "Partaide bakoitzak lan bat aurkeztu ahalko du, euskarri digitalean, CD batean edo pendrive batean. Euskarri desberdinetera egokitu daitekeen formatua izan beharko du. Logotipoak originala eta berria beharko du izan, bere osotasunean, beste inon erabili izan ez dena."

Lanak aurkezteko epea zabalik dago, apirilaren 4ra bitartean. Mankomunitatean aurkeztu beharko dira lanak, Lakuntzan, bulego ordutegian (8:00-15:00). Epai mahaiak baloratuko du aipatutako helburuekin identifikatzeko erraza izango den irudia izatea, originala, berria, euskarri desberdinetera egokitzeko gaitasuna duena. Ez da

onartuko, inolaz ere, edozein erakunde edo pertsonaren kontrako balio edo arrasto arrazistak, xenofoboak edo baztertzailak dituen inongo proposamenik.

Erakusketa

Epaimahaia Sakanako Mankomunitateko presidenteak, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzuko buruak eta diseinu munduko profesionalak osatuko dute, eta euren erabakia ezin izango da apelatu. Sari bakarra izango da, 300 eurokoa, sarituak Sakanako Dendarien Elkarteko denda eta komertzioetan erabili ahal izango duena. "Apirilean bertan aukeratu nahi da logotipo berria eta ordutik bertatik

**HARREMANETARAKO:
ANITZARTEAN@
SAKANA-MANK.EUS
E-POSTA EDO 648 070
710 TELEFONOA**

hasiko gara erabiltzen. Lehiaketara aurkeztu diren lan guztiekin erakusketa bat egin nahiko genuke. Jakina, logotipo lehiaketan parte hartzera animatzen dugu jende guztia" gaineratu zuen Zestauk. Teknikariak azaldu zuen lehiaketako lan irabazlea Sakanako Mankomunitatearen jabetza izatera pasako dela. "Lehiaketara aurkeztutako gainontzeko lanei dagokienez, lanak jasotzeko epe bat jarriko dugu eta epe horretan jasotzen ez diren lanak Sakanako Mankomunitatearen jabetza izatera pasako dira" zehaztu zuen kulturartekotasun teknikariak.

Izen aldaketaz

Izen aldaketaren arrazoiez galdetuta, atzera egin du Bego Zestauk. "2006an eta 2007an hasi ginen Sakanan immigrazioa lantzen, orduan Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzarekin, ordutxo batzuk. Mankomunitateak zerbitzuari jarripena ematea erabaki zuen eta Immigrazio Zerbitzua 2008an sortu zen zerbitzu bezala. 2012ra arte Gobernuaren laguntza jasotzen jarraitu genuen, etorkinendako harrera plana garatzeko. 2014an bukatu zen laguntza hori. 2012an Sakanako Mankomunitateak erabaki zuen zerbitzua bere gain hartzea. Eta orduan zerbitzuaren inguruko hausnarketa hasi zen. Izan ere, ez da etorkinei bideratutako zerbitzua, Sakanan bizi diren guztiei bideratutakoa baizik" azpimarratu zuen Zestauk.

Izenaren inguruan adostasunik ez zegoela gogoratu zuen Zestauk. "Migrazioa eta aniztasunaz hitz egiten zen orduan, baina izena aldatzeko ez zen erabaki sendorik hartu. 2016an, legegintzaldi berriarekin, hausnarketa serioa hasi zen berriro. Aniztasuna kudeatzen ari ginela argi genuen, baina zerbitzuaren helmuga edo horizontea kulturen arteko hartu emanetara bideratuz, kulturartekotasuna helburu. Eta, horrela, Anitzartean Kulturartekotasun Zerbitzua izena jartzea erabaki zen aurreko urtean, 2017an" gaineratu zuen teknikariak. "Orain, irudia eta ikurra jarriko diogu izen berriari, eta espero dugu logotipo lehiaketan jende askok parte-hartzea, irudia aukeratzea oso zaila izatea eta ikaragarriko logotipo ederra sortzea" opa zuen Zestauk.

Errigoraren Eskutik Eskura kanpaina martxan da


Erriberako ekoizleen produktuak erosteko eskaerak martxoaren 20ra arte egin daitezke

SAKANA

Errigorak gure sukaldeak eta ekoizleak lotuko dituen zubiak egiten, komunitatea sortzen ari da. Bertako, kalitatezko eta osasuntsu diren produktuen aldeko apustua egin dute, "gure elikadura beharrei erantzuteko gaitzen herria amesteko". Guztia lan boluntarioan oinarrituta, auzolanean.

Erriberako 14 ekoizleren produktuak dira Errigorak eskaintzen dituenak: olio birjina estra, pikillo piperrak, zainzuriak, orburuak, barazki-menestra, potxak, tomate frijitua eta barazki kremak. Guztien eskaintza bikoitza da, ohiko ekoizpenekoa edo ekologikoa. Guztiak ere euskaraz etiketatuta eta ekoizleen jatorrizko prezioan, despentsa betetzeko moduan.

Errigorako eskaera egiteko garaia orain da, martxoaren 20ra arte. Eskaerak ohiko tokitan egin daitezke Sakanan, bestela www.errigora.eus web orriaren bidez. Olioia eskatzen dutenek hura apirilaren 9tik 20ra bitartean jasoko dute. Kontserben banaketa, berriz, maiatzaren 31n hasi eta garagarriaren 12 bitartean egingen da. 2017an 86.500 litro olio eta 208.000 kontserba ontzi banatu ziren hala.



HARA ZER DIEN

**Hunkigarria!
Itxaropentsua!****EMAKUMEEN BILGUNEA**

Aurtengo Martxoaren 8ak emakumeen egoera, nekea eta haserrea ere islatu ditu, baita Sakanako emakumeena ere. Aurtengo izan da feminismoak urteak eta urteak –azken boladan 100 urte– lantzen ari denaren ondorioa; emakume feministen mugimendurik eta hausnarketarik gabe gizartea ez zela urrats honetan izango, dudarik gabe! Hau da gure lehenengo konklusioa.

Sakanan ere inoiz ikusi ez dugun hainbeste emakume atera gara manifestazioetan eta greban, beste lekuetan moduan, Sakanan ere asko hobetu behar direlako emakumeen bizitzeko eta lan egiteko baldintzak. Martxoaren 8an emakumeok lau esparru sozialen diskriminazioak azpimarratu ditugu: enpleguan, zaintzan, ikasketetan eta kontsumoan gertatzen direnak. Gizarteari argi erakutsi dizkiogu; beraz, hemendik aurrera inork –pertsonek, erakundeek eta gobernuek– ezin du esan ez dituela ezagutzen.

Orain irtenbideak jartzeko beharra dugu. Irtenbide horiek esparru guztietatik atera behar dira, hau ez delako emakumeen arazoa soilik, baizik eta gizartearen arazoa; beraz, gizartea da diskriminazioa ezabatu behar duena. Hau egiteko, argi dugu erakundeek legea betetzea lehenengo pausua dela. 'Legea betetzea' esaten dugu, nahiko arautegi aitzindaria dugulako une honetan, nahiz eta bete gabe egon: administrazioak, enpresek, sindikatuek, erakundeek ez dute berdintasun- araudia betetzen. Eta baieztapen hau errealitate-ramateko, galdera batzuk: Sakanako Udal guztiek ezagutzen dute zer egiteko beharra duten? Legeak esaten duen moduan, Sakanako enpresa guztiek berdintasun-ekintzak garatzen dituzte? Noizbait hitzarmen sindikal batean emakumeen lan egiteko neurriren bat sartu da? Badakite zer egin emakumeen kontrako indarkeriaren kasu batean? (...)

Orain jakin ere badakigu zer egin. Martxoaren 8ak, elkartasunaz gain, lan egiteko konpromisoa utzi digu. Hartu eta aurrera!



ARAKIL KULTURA

Arakilen zuhaitz berriak

30 bat haur, eta haien gurasoek, ospatu zuten larunbatean Arakilgo zuhaitz eguna. Eguraldiagatik Etxarrengo frontoian elkartu eta tailerretan ibili ondoren, guztiak bi taldetan banatu ziren. Batzuk Etxarrengoren gelditu ziren eta besteak Itsasperri ermitara jo zuten. Herrian 5 gaztainondo landatu ziren eta ermitan 6 masustondo.



GUAIXE

Urdiainen pizza egiten, euskaraz

Urdiaingo Gurasoen Euskara Batzordeak antolatuta, martxoaren 4an neska-mutil talde ederra bildu zen Aitziber elkartearen, pizza tailerretan parte hartzeko. Euskaraz aritzea, hori zen baldintza bakarra. Pizza masa egin ondoren, norberak bakoitzaren gustura prestatu zuen bere pizza. Labean sartu eta afari-merienda ederra egin zuten guztiek, giro ederrean.

Iruñeko geltoki proiektuak koordinatzaile arbizuarrak du

Katrin Ginea Mundiñano da autobus geltoki zaharrean elkartasun-ekonomia proiektuko kudeatzailea

ARBIZU

Iruñean elkartasun-ekonomia ezagutzera emateko gune bat sortzeko egitasmoak zazpi urte baditu. Sustatzaileek diotenez, "gutxi batzuen onurarako baizik ez den ekonomiaren alternatiba

gisa, kontsumoan eta baliabide naturalen esplotazioan oinarriturik dagoen ekonomia ereduari aurre egiteko, elkartasun-ekonomia bultzatu nahi dugu: pertsonak, haien hazkuntza, integrazioa eta garapena lehe-



GUAIXE

Gurditxoak, aitzurrak eta lizarrak

Horiek guztiak behar izan ziren Arbizuko zuhaitz egunean. Aurrenak joan den urtean jaiotako umeak plazatik San Juan ermitara eramateko. Bigarrenak ermita eta autobia arteko tartean zuloak egiteko. Eta azkenak, zulo haietan landatzeko. 17 lizar izan ziren landatu zirenak, nahiz eta kintada guztia presente ez egon. Gero auzatea izan zen.



ARTXIBOA

Larrazpi Eguna bihar

Irurtzango gazte elkarteak bere eguna ospatuko du bihar. Hasteko, 14:00etan, karpan bazkaltzera elkartuko dira. Handik mugitu gabe mus eta partxis txapelketako jolastuko dituzte 16:00etatik aurrera. 19:00etan elektrozarata zabalduko dute. 21:00etan afaldu eta gero Katez, Rotten XIII, Txastoak, Eingo al deu? eta Jo ta Txo dj-ren musika izanen dute.

nesten dituen ekonomia eredu jasangarria, mundu hobego bat garatzeko tresna izanen dena".

Autobus geltoki zaharreko txarteldegian eta tabernan kokatzen da Geltokia. REAS, Emauko Traperoak, Nafarroako Nekazal Produktzio Ekologikoaren Kontseilua (CPAEN- NNPEK), EHNE Nafarroa eta Nafarroako Elikagai Artisauen Elkarteak sustatzen dute proiektua eta haren koordinatzailea Katrin Ginea Mundiñano arbizuarrak da. Maiatzean zabalduko da.

Arakilgo Udalak sagardotegira joateko eskaintza egin du

Arakilgo Udalak sagardotegi bazkaria antolatu du apirilaren 7rako. Izena hilaren 28ra arte eman daiteke. Arakilen erroldatutakoek 30 euro pagatu behar dituzte, ez daudenak 35. Egunean bertan, Hernanirantz 12:00etan abiatuko dira. Han poteatu ondoren 14:00etan Itxasburu sagardotegian bazkalduko dute eta 02:00etan Arakilera buelta.

Parte hartze aurrekontuen bozketa larunbatetik

Udalaren 35.000 euro zertara bideratu erabakitzeko lau proposamen daude. Botoa martxoaren 25era arte eman daiteke Tahonan, M^a Jesusenean, Lorenarenean, Eroslen, udaletxean, jubilatutan, Pikuxarren edo preparirurtzun@gmail.com helbidearen bidez

IRURTZUN

Zortzigarren urtez irurtzundarrekin udal aurrekontuko zati bat zertara bideratu daitekeen erabakitzeko aukera dute. Horrekin batera, urtero moduan, bozka txartelean irurtzundarrekin egiteko premia dagoela uste duten lanak edo proiektuak proposatzeko aukera dute. Aurten, gainera, parte hartze aurrekontuen taldekoek nork bere auzoan edo

kalean sumatzen dituen premiak, hutsuneak edota arazo txikiak nabarmentzeko aukera gaineratu dute. Beraz, herri eta kale mailako proposamenak egiteko aukera izanen da. Aurreko aldietan bezala, bide honen bidez jasotako eskaeren berri izan ondoren, udalak kostu txikiak duten hainbat lan eta konponketa eginen ditu. Proposamen bideragarriak izatea eskatu dute,

heldu den urteko prozesuan erabili ahal izateko.

Parte hartze aurrekontuen taldeak joan den urteko prozesuan eta azken hilabeteetan talde eta elkarteekin egindako bileretan jasotako proposamen eta iradokizunetan oinarrituz, hautagai izan zitezkeen proiektuen aurre aukeraketa egin zuen, herriko hainbat talderen parte hartzearekin. Denak ezin aurre-

ra eraman eta lau aukeratu dituzte, irurtzundarrekin boto bidez haietakoren baten alde egin dezaten. Botoa martxoaren 17tik 25era eman daiteke. Ohiko tokietan izanen dira botorako ontziak eta txartelak. preparirurtzun@gmail.com helbide elektronikoa ere baliatu daiteke.

Orain artekoak

- **2011** Erreka eta Bi Haizpe aisialdirako.
- **2012** Espaloien errespetua.
- **2013** Igerilekuak hobetu.
- **2014** Eskolako aldagelak.
- **2015** Karpa.
- **2016** Anbulantziendako sarbidea osasun etxera.
- **2017** Plaza hobetzea.

Jostailuen truke azoka bihar Uharte Arakilen

Astean zehar jostailuak eman dituzte eta txartel bat jaso. Hark emanen die trukeerako aukera

UHARTE ARAKIL

Astelehenean asteazkenean Uharte Arakilgo haur txokora eraman dituzte txikiak euren jostailuak. Egoera onean zeuden jolasak han utzi eta trukean txartel bat jaso dute. Bihar, 11:00etatik 13:00etara, Uharteko plazatik pasako dira eta han erakusketan jarritako jostailu guztien artean bat aukeratu eta txartelaren truke etxera eraman ahal izanen dute. Eurria egiten badu frontoian izanen da. Jostailuak soberan geldituko balira Sahararen aldeko ANARASD erakundeari emanen zaizkio. Baina trukeaz aparte, txikiak plazan joko kooperatiboetan aritzeko aukera izanen dute. Henna tailerra ere izanen da eta eskulan tailerrean orri markatzaileak egiteko aukera izanen da.

Sexualitate tailerra

Sexu heziketa haurtzarotik hasten delako, gurasoei zuzendutako sexu heziketa tailerra izanen da. Pubertaroa eta bere ezaugarriak landuko dira hiru saioetan. Tailerra eskolan izanen da eta saioak 15:00etan hasiko dira. Isabel Pozueta sexologoa izanen da tailerra emanen duena. Gizarke zerbitzuetan edo guraso elkarteetan eman behar da izena.

Lau proposamenak



Frontoiaren berokuntza eta kondentsazio arazoak

Irurtzungo Atakondoa ikastetxeko frontoi estaliak duen kondentsazio arazoari konponbide egokia eman nahi zaio. Eta, bide batez, berokuntza sistema egungo beharretara egokituko da.



Igerilekuetako berdeguneak eta sarrerako hurbiltzea konpondu

Berdeguneak prestatu ondoren belarra berriz erein, hainbat makal moztu, merenderoaren ingurua hobetu eta erretokia berritu. Sarrerako hurbiltzeko dagoen arrapala hobetzea.



Frontoi atzeko parkea handitzea

Udaletxe ondoko haurrentako jolas parkean egungo jolas-tresnen kopurua handituko litzateke, berdegunea baliatuz eta behar bereziak dituzten haur guztien inklusibitatea ahalbidetuko luketen jolasekin.



Barraketako esparrua asfaltatu edo hormigoitu

Urtean zehar aparkalekua den eta azken urteetan herriko festetan barrakak jartzen diren espazio irekiko zorua berdindu eta hobetzea, horrela, espazio ireki horri bestelako erabilerak emateko aukera legoke.

Pentsio duinen eskaerak kalean segitzen du

Astelehenean eta atzo kontzentrazioak egin ziren eta bihar, 18:00etan, Iruñera joateko deia luzatu dute

SAKANA

Sasoiak, Nafarroako jubilatuen elkarteak Etxarri Aranazko azokatik egin zuen deia astelehenean. Eta bart Nafarroako Pentsionistak Martxanek egin zuen, Altsasuko udaletxe paretik. Bi

kontzentrazioetan hainbat sakanadar elkartu ziren. Pentsioen aurtengo % 0,25eko igoera salatu zuten eta pentsio publikoaren sistema bermatzea aldarrikatu zuten. Giro horrekin herenegun Mariano Rajoyk jakinarazi zuen

gutxieneko pentsioak eta alar-gunak handitzeko eta errentaren gaineko zergaren kenkariak pentsiodunei aplikatzeko aukera dagoela, baina oposizioko taldeei aurrekontuak onartzeko baldintza jarri zien.

Iragarpen horrek, hala ere, ez du pentsiodunen eta, orokorrean, jendearen nahia ase eta larunbatean makina bat manifestazio deitu dira pentsio duinen alde eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioen alde. Iruñekoa, 18:00etan, abiatuko da Gaztelu plazatik.



Pentsioen alde Etxarri. UTZITAKOA



Auziaren salaketa Iruñerrian barna

#AltsasuMartxan ekimenak hiru bizikleta martxa antolatu ditu larunbaterako Iruñerrian. Guztiek Iruñeko Gaztelu plazan bat eginen dute 13:30ean. Altsasukoa terrorismoa ez dela, justizia eskatu eta presoak askatzea eskatuko dute

ALTSASU

Altsasuko 48 elkartek eta taldek antolatutako Nafarroako biraren laugarren etapa Iruñerrian izanen da bihar. Hiribururantz joanen diren hiru bizikleta martxa antolatu dituzte auziaren berri emateko.

Barañainen 11:00etan dute hitzordua jarrita. Herriko kolektiboek Altsasuko Gurasoei harrera eginen diete eta ekitaldia izanen da. Eguerdian abiatuko dira txirrindulariak Iruñerantz. Gaztelu plazara iritsi aurretik Golem zinemetan beste ekitaldi bat izanen da.

Bigarren zutabea Berriozartik abiatuko da 10:30ean. Martxistei harrera egin ondoren ekitaldia izanen da. Handik Errotxapearantz joko dute 11:30ean. 11:45ean eginen dute auzoan ekitaldia eta 12:15ean Txantrearantz abiatuko dira. 12:30ean iritsi eta ordu erdiko ekitaldia izanen da. Atarrabia izanen du abiapuntu 3. zutabeak. 11:00etan harrera eginen diete gurasoei eta ekitaldia izanen da. Burlatan gauza bera, 12:15ean eta hura bukatzean Iruñerantz joko dute. Iruñeko Alde Zaharrean eta Gaztelu plazan eguerditik animazioa izanen da.

Bestalde, pasa den larunbatean #AltsasuMartxan-en hirugarren



Herenegun atxilotetak izan zirela 485 egun bete ziren. @ENTZUNALTSASU

etapa osatu zuten eta mobilizazioetan 3.470 pertsonen babesa jaso zuten: Lekunberrin 200, Leitzan 800, Iturenen 70, Elizondon 1000, Beran 1000 eta Baigorri 400. Altsasuarra eta sakandarrak parte hartzera gonbidatu dituzte.

16 hilabete

Auzipetuak dauden gazteak atxilotu zituztela 16 hilabete bete ziren herenegun. Hileroko 14. egunean ohi denez, auzia gogorarazteko ekitaldia antolatu zuen Altsasukoak Aske herri-asan-

bladak, eguraldiagatik Gure Etxea eraikinean egin zena.

Auzipetu adina gaztek hartu zuten hitza. Bakoitza auzipetu baten larruan sartu zen eta bizi zituen sentipenak azaldu zituzten. Irakurketa guztiak esaldi berarekin bukatu zituzten: "baina ni ez naiz bera, baina izan nintekeen".

Herenegunoko ekitaldia berezia izan zen, apirilaren 14an, Iruñean eginen den manifestazioaren eta hilabete barru hasiko den epaiketaren aurretik azkena izan zelako.

Taldetik adierazi dutenez, "berriz ere babesgabetsun izugarriaren ikusten ditugu gure buruak mozal legeak okupazio indarrei ezarri dien eskumen bidegabekin". Eta gaineratu dutenez, "onartezina da edozein adierazpenengatik, elkartasuna adierazteagatik edota iritziak kale-razteagatik isunak jasotzea".

Azken zazpi urteetan 45.000 euroko isunak izan direla ohartarazi dute. "Isun politikoak" jasotzen dutenek isunak.altsasu@gmail.com e-postara jo dezakete.



Reyren lankideak Irurtzunen. UTZITAKOA

Presoen urruntze politikaren salaketa

Xabier Rey Urmeneta preso iruindarraren heriotza salatzeke hainbat mobilizazio egin ziren

SAKANA

Pasa den asteko asteartean hilik opatu zuten Puerto de Santa Maria IIIko espetxean Xabier Rey Urmeneta, Antxo. Asteazkenean Irurtzunen, Arbizun eta Etxarri Aranatzen kontzentrazioak egin ziren. Eta ostiralean Altsasun eta Irurtzunen. Azken hori Neumaticos Iruña enpresako langileek egin zuten, Reyk lantegi horretan lan egin baitzuen. Bere lankide izandakoek *Espetxe politika hiltzailea! Antxo gogoan* leloa zuen pankartaren atzean elkartu ziren.

Etixerat elkarteak presoen eskubideen alde Etxarri Aranatzen kontzentrazioa egiten du ostiraleroko. Azkena berezia izan zen. Reyren heriotza saihestu zitekeela gaztigatu zuten, eta heriotzaren erantzule "Espainiako estatua" egin zuen, "salbuespeneko espetxe politika suntsitzailerari tinko eusten baitio". Ostiralean bertan, Etxarri Aranatzen, Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren kontrako Mugimenduak (AEM) manifestazioa egin zuen. Mobilizazioaren buruko pankartan honako leloa zegoen: *Xabier gudari eraila. Hemen ez dago bakerik. Herriak ez du barkatuko*. Bestetik, Iruñeko larunbateko manifestazioan sakandarrak izan ziren.

EAJk batzokiko pintaketak gaitzetsi eta salatu ditu

Puerto de Santa Mariako espetxean hil zen presoaren heriotza salatzen zuten

ALTSASU

Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) Altsasun duen egoitzan, batzokian, *Antxo agur eta ohore* eta *PNV konplize hiltzaileak* pintaketak agertu ziren larunbat goizean. Jeltzaleendako pintaketak "onartezinak eta tokiz" kanpo daude. "Halako jarduera antidemokratikoak salatzen ditugu, herrian elkarbizitza giroa sortzen ez dute batere laguntzen". EAJko kideen iritziz alderdi politiko baten egoitzaren kontrako erasoak "traza totalitarioa du eta haren kontra indar politiko eta demokratiko guztiek azaldu beharko lukete". Jeltzaleek aurreratu dutenez, gaia Altsasuko Udaleko plenora eramanez dute.

EAJtik, azkenik, gaztigatu dute halako gertaerak "ez dute bat egiten gaur egungo Altsasuko eta Nafarroako demokrazia heldutasunarekin. Ezta erakundeetan ordezkatuak daude indar politikoekin ere. Gero eta ulertezinagoak dira eta tokiz eta denboraz kanpo daude".

Bestalde, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak pintaketekiko "erabateko gaitzespen sendoa" azaldu zuen astelehenean.

Bakaikun dispertsioaren oroigarria jarri dute

Euskal presoek ezartzen zaien urruntzea, dispertsioa, salatzeke Bakaikun oroigarria mustu zen atzo. Makina bat herritar presente zeudela mustu zen oroigarria. Erdiko iturriaren ondoan dago dispertsioaren oroigarria. Sakanako zazpi presoak dauden espetxetara dagoen distantzia markatzen duen karteletz osatuta dago.

Isun moduan ezarritako buroerrepresioa salatu dute

Larunbat gauean etxera joaten zen gazte bati Guardia Civilak 600 euroko isuna jarri ziola salatu dute

ALTSASU

Isunak Altsasu taldetik jakinarazi dutenez, larunbat gauean etxera oinez zihoan gazte bat "Guardia Civilaren patrol bat gurutzatu eta geldiarazi zuen. Gazteak bakean uzteko eskatu

ziren etxeko bidean zegoela esanez. Baina Guardia Civila harrotu egin zitzaion, paretaren aurka jarri, katxeatu eta atxilotzearekin mehatxatu zuten. Ondoren, 600 euroko isuna jarri diote".

Deskontu Sarea

Ez galdu bezero berriak lortzeko aukera

BERRIAren

Deskontu Sarean

parte hartu nahi duzu?



Milaka lagunengana iritsiko zara!

Negozio bat baduzu, eskaini abantaila edo deskonturen bat, eta guk doako sustapen pertsonalizatua egingo dugu **BERRIAlagunen komunitatean**.

Zure saltokian erosteko gonbita egingo diegu!

Nola parte hartu?

Jarri gurekin harremanetan gure bezero arretarekin

- 943-30 43 45
- laguna@berria.eus
- Txat bidez (Berria.eus/berrialaguna)



berria
#BERRIAk15



Jose Ubeda, Otsaportillotik Altsasuko hilerrira

Haren bilobak, birbilobak eta herenilobak despeditu zuten larunbatean egindako ekitaldian

ALTSASU

Saminak ez du atsedean hartzen desagertuen etxean bederen. Non ote dira jakin nahi nuke. Hala kantatu zuen Bide Ertzean taldeak *Non dira* diskoan. Jose Ubeda Sanchez birraitona zuten gogoan. 82 urte eta gero Altsasuko hilerrian dago.

Pasa den larunbatean ekitaldi xume eta hunkigarria egin zen Altsasuko hilerrian. Ana Olo kontseilariak familiari Jose Ubedaren gorpuzkiak bueltatu zizkien, udaleko eta Aranzadi zientzia elkarteko kideak leku-

ko zirela. Azken horiek Otsaportilloko lezean joan den urtean egindako azterketaren ondoren lortu zuten Ubedaren gorpuzkiak opatzea eta gero identifikatzea.

Profila

Gabrielaren eta Joserren semea 1884ko abenduaren 2an jaio zen Madrilen. Catalina Alzaga Ortegarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen (Jose, Antonio, Jose Luis eta M^a Rosario). Ubeda UGT sindikatuko kidea zen. Renfeko langilea, maletak eramaten zituen. 1930 eta 1936 urteen



Ubedaren senideak hilerriko ekitaldian. NEREA MAZKIARAN

epaitegiko idazkaria izan zen. Beharra zuten familiendako eta gizarte ekintzarako antzezlanak egiten zituen talde bat zegoen eta Jose eszena-tokiko dekorazioak aldatzen zituen. Estatu kolpearen kontrakoa iza-

teagatik Otsaportillon hil zuten, 52 urte zituela, 1936ko agorrilaren 16an. Haren emazte Nieves Brianzo eta Rodolfo eta Nieves (3 eta 2 urte) seme-alabak herri-rik bota zituzten. Zaragoza eta gero Tolosan kokatu ziren.



Lanbide Heziketako ikasleek ikasketa-zerbitzu programaren barruan aritu ziren.

Ginkana, ikasketak praktikan jartzeko modua

Lanbide Heziketako mendi ertaineko zikloko ikasleek 156 ikaslerendako ginkana prestatu zuten

SAKANA


Pasa den asteke asteartean Sakanako eskoletako Lehen Hezikuntzako 6. mailako 156 ikasle Altsasuko Zelandi kiroldegian elkartu ziren. Lanbide Heziketan mendi ertaineko teknikari ikasketako lehen maila egiten ari diren hamar ikasleek egindako deialdiari erantzun zioten.

Haien irakasle Jon Bengoetxeak azaldu zigunez, hilaren erdialdetik aurrera hasiko dira mendira joaten, baina eguraldiak laguntzen ez zuenez, haurrendako ginkana kiroldegian egitea erabaki zuten. "Soziologia eta

psikologia landu beharko dituzte, jendearekin lan egiteko". Ginkanak horretarako aukera eman zien ikasleei. Hura goitik behera antolatzeak eta aurrera eramatea ere haien ardura zen. Baita ondorengo balorazioa, jarduera nola atera zen eta zer sentitu zuten adieraztea.

Txikiak bitartean hainbat joko kooperatibo eta ez lehiakorrek inoiz gozatu zuten. Sakanako haurrek elkar ezagutzeko aukera izan zuten. Kalejirarekin agurtu ziren.

Lanbide Heziketan mendi ertaineko ikasketak 5. urteurrena dute, eskaladakoez bi daramatzate.



Altsasura etorriko diren zombietako batzuk herenegun bisitan izan ziren.

Zonbi kuadrilla batek Altsasu bisitatuko du maiatzaren 12an

Survival Zombie aisialdi alternatiboko jardueran 500 bat pertsona parte hartzea espero dute antolatzaileek

ALTSASU

Altsasun, eta Nafarroan, berria den jarduera da *Survival Zombie*, Altsasun, maiatzaren 12ko, larunbateko, 23:00etatik domekako 06:00etaraino iraunen duena. Trebezia eta estrategia uztartzen dituen jarduera da.

Parte hartzen duten pertsonen herrian barna zehaztutako puntu jakinetan jarduera batzuk egin beharko dituzte. Baina batetik bestera mugitzen direla kontu izan beharko dute zombiak harrapa ez ditzaten. Hori gertatzen bada bi aukera dituzte parte hartzen segitzeko, edo zonbi

bihurtu eta beste parte-hartzaileak harrapatzen segi edo txertoa hartu.

Jarduera horretan 10 urtetik gorakoek parte hartu dezakete, taldeka edo bakarka. Hori bai, 14 urtetik beherakoek gurasoek lagunduta parte hartu beharko dute. Zombien artean esperientzia bizi nahi dutenek apirilaren 1etik aurrera eman dezakete izena www.survivalzombie.es web orrian edo Iortia kultur gunean. 12-30 urte artean eta altsasun erroldatuta daudenak 17 euro pagatu beharko dute, besteek 22.

Lan istripuan larri zauritu da gazte lakuntzar bat

Lakuntza 30 urteko gizonetako bat larri zauritu zen atzo goizean Sakanako kooperatiban lan istripua izan ondoren. Antza, metalezko plataforma baten erorketak eragin du ezbeharra. Suhiltzaileak, ambulanzia eta osasun zerbitzuak gerturatu ziren. Larritasuna ikusita, larri zaurituta, helikopteroz ospitalera eramane zuten.

Udalak industrialdeak seinaleztatu ditu

Ibarrea, Isasia eta Ondarria industrialde sarreretan panel handiak jarri dira

ALTSASU

Berriki Altsasuko Udalak herriko hiru industrialdeen sarreretan panel bana jarri du. Haietako bakoitzean industrialdearen plano bat eta han dauden enpresen izenak daude. Bakoitzaren kokapen zehatzaren berri ematen du panelak. Horrekin batera, Altsasuko Udalak industrialdeetako kaleak seinaleztatu ditu eta enpresa bakoitzari kaleari dagokion zenbakia eman dio. Seinaleztapen lan hori Altsasuko Udalararen Ekonomia Garapen, Merkataritza, Turismo eta Enplegu batzordearen eta enpresen arteko elkarlanetik sortu dela gaztigitatu du Javier Olo Martinez alkateak. Olokek esan duenez, seinaleztapen horren helburua "industrialdeetan dauden enpresetara errazago iristeko modua ematea da". Alkateak jakinarazi duenez, Ondarria industrialdeko kaleen zati batean ere zorua berritu dute.

Olokek gogorarazi duenez, "2016an herriko puntu nagusiak seinaleztatzen hasi ginen, seinale bidez udal eraikinak, ikastetxeak eta industrialdeak non dauden adieraziz. Eta udal batzordeak egoki jo zuten udalerriko hiru industrialdeen planoak ordenatzea".

Urrezko puntuaren bila, sakandarrak arerio

PILOTA Binakako finalerdietako lehen jardunaldiko partidak galdu ondoren, igandean elkarren kontra lehiatuko dira Ezkurdia-Zabaleta eta Altuna III.a-Martija. Finaletara sailkatzeko aukerak izateko, bi bikoak irabaztera derrigortuta daude

Binakako Pilota Txapelketako finalerdietan gauzak ez dira ongi hasi gure pilotariendako. Pilotari sakandarrak ezin izan dute punturik bildu eta igandean, Eibarren, elkarren kontra aritu beharko dute Ezkurdia-Zabaletak eta Altuna III.a-Martijak, biak urrezko puntu horren faltan. Aurretiatzeko finala izango da jokatu beharko dutena.

Labriten, Elezkanok erabaki zuen

Finalerdietako lehen jardunaldian, larunbatean Elezkanok eta Rezusta izan zituzten aurkari Joseba Ezkurdiak eta Zabaletak. Partida gogorrean, emozioa eta tentsioa ziren nagusi goraino beteta zegoen Bomboneran.

Atzeko koadroetan, oreka izan zen nagusi. Jose Javier Zabaleta ikusgarri aritu zen; partida handia egin zuen etxarrendarrak, baina Rezustak, agindu ez arren, bikain eutsi zion. Horrela, aurrealdean erabaki zen partida eta Elezkanok Ezkurdia baino hobeto aritu zen. Hamar tanto egin zituen, eta bakarria galdu. Ezkurdiak zazpi tanto egin zituen eta bi galdu zituen. Nahiz eta Ezkurdiak eta Zabaletak partida dominatu, Elezkanok eta Rezustak lortu zuten garaipena.

Partida hasieran sakandarrak izan ziren aurreratu zirenak, 6 eta 3, baina pilota aldatzearekin batera Elezkanok eta Rezustak zortzi tanto egin zituzten jarraian eta 11 eta 6 jarri ziren aurretik. Segidan, pilota berreskuratu zuten sakandarrak, Zabaletak gora egin zuen eta Rezustari nekea antzematen hasi zitzaion. 15 eta 14 aurreratu ziren sakandarrak, baina hortik aurrera Elezkanok hartu zuen agintea, Rezustari lagundu zion eta tanto ederrak pilotatzen hasi zen. 18 eta 20 gerturatu ziren Ezkurdia eta Zabaleta, baina, azkenean, 18 eta 22 irabazi zuten Elezkanok eta Rezustak. "Lau tontakeri-



Ezkurdia-Zabaletak eta Altuna-Martijak derrigorrezkoa dute irabaztea. ALEMANY

SAKANDARREN ARTEKO LEHIAN, GALTZAILEAK AUKERARIK GABE GERATUKO DIRA

rengatik egin digu ihes partidak; aurrekoan ere berdin gertatu zitzaigun eta oraingoan ere bai" aipatu zuen Zabaletak.

Olaizolak punturik gabe utzi zituen Altuna III.a eta Martija

Aimar Olaizolak puntan jarraitzen duela erakutsi zuen igandean Atano III.aren. Berak eta Imazek 22 eta 17 irabazi zieten Altuna III.ari eta Martijari eta finalean egoteko pausu garrantzitsua eman zuten.

Partida hasi eta berehala, 0 eta 5 aurreratu ziren Altuna eta Martija. Baina Asegarcekoek egoerari buelta eman zioten, eta sei tantoko partzialarekin 6 eta 5 aurreratzea lortu zuten. Hortik aurrera izugarri gogortu zen partida eta partida ikusgarriaz gozatu zuten pilota zaleek. 7 eta 10 aurreratu ziren Altuna eta Martija, baina gutxinaka Imaz

Martijari nagusitzen hasi zitzaion. Hortik aurrera, Olaizolak eta Imazek hartu zuten abantaila, baina 17na berdintzea lortu zuten Altunak eta Martijak. Martijari nekea sumatzen hasi zitzaion, eta, hortik aurrera, Aimar Olaizola eta Imaz zuzenean joan ziren 22raino.

Sakandarrak elkarren kontra

Asteburuan Binakako finalerdietako ligaxkako bigarren jardunaldia jokatu da. Galtzaileak elkarren kontra lehiatuko dira eta irabazleak euren artean. Horrela, larunbatean Olaizola II.ak eta Imazek Elezkanok II.a eta Rezusta izango dituzte aurkari Labriten (17:00etan, ETB1). Eta igandean, Eibarko Astelenan (17:00etan, ETB1), sakandarren arteko lehia izango da: Ezkurdia eta Zabaleta Altuna III.aren eta Martijaren kontra.

Biak punturik gabe daudenez, partida galtzen duen bikoak finalera sailkatzeko aukerarik gabe geratuko da eta puntua irabazten duenak, aldiz, txapelketan aurrera egiteko aukera izaten jarraituko du. Hil ala biziko partida beraz, sakandarren artekoa. Ikusmina handia da.



Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketako finalistak. NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Nafarroako hiru txapela lortu ditu Etxarriko Gure Pilotak

PALA NKJen Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketatik hiru txapela etorri dira Sakanara

Nafar Kirol Jolasen 36 metroko frontoiko Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketako final handiak martxoaren 3an jokatu ziren. Etxarri Aranazko Gure Pilota klubak jokoan zeuden 5 finaleratik hirutan jokatu zuen eta hiru final horiek irabazi egin zituen. Horrek Sakanako klubak egiten duen lana aitortzen du.

Benjaminetan Bergarak eta Nuñezek, kimuetan Oretak eta Murugarrenek eta kadeteetan Blainek eta Otxoak lortu zituzten txapela preziatuak. Campos-Amado eta Beltza-Erauskin txapelkunordeak izan ziren.

Sakandarrak finaletan

NKJen Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketa

- **Benjaminak:** Bergara-Nuñez (G. Pilota) 18 / Campos-Amado (G. Pilota) 9
- **Kimuak:** Oreta-Murugarren (G. Pilota) 18 / Beltza-Erauskin (G. Pilota) 10
- **Kadeteak:** Biain-Otxoa (G. Pilota) 25 / Sarralegi-Galartza (Larraun) 5

IV. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa antolatu dute

PILOTA Lau maila izango ditu, emakumezkoena tartean, eta martxoaren 19ra arte eman daiteke izena

Aurten ere Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa jokatu da Altsasun. Altsasuko Gazte Asanbladak antolatu du urtetik urtera arrakasta handiagoa duen txapelketa. 4. edizioa izango du eta 4 mailatan jokatu da, horietako bat emakumeena.

Izena ematea zabalik dago martxoaren 19ra arte (616 609 674). Partidak ostiral arratsaldeetan eta domeka arratsaldetan jokatu dira, Burunda frontoian. Gazte, heldu, emakume zein gizonak lehiaketan izena ematera animatu dituzte.



Iazko parte-hartzaileetako batzuk. AGA

VIII. Altsasuko Copreci Duatloia bihar jokoan

DUATLOIA Sakana Triatloi Taldeak hainbat babesleren laguntzarekin antolatuta, bihar, larunbatean, goizeko 10:30ean Nafar Kirol Jolasen Altsasuko Duatloi probaren txanda izango da, eta 15:45ean nagusien proba jokatuko da,

Bihar, martxoaren 17an, larunbatarekin, Sakana Triatloi Taldeak hainbat entitate eta babesleren laguntzarekin antolatutako VIII. Altsasuko Copreci Duatloia jokatuko da, Sprint Distantziako proba (5 km-22 km-2,5 km). Antolatzaileak burubelari dabilta bihar proba zoragarri hau burutu ahal izateko. Goizean, 10:30ean, kategoria txikikoak ariko dira lehia, Nafar Kirol Jokoetarako (NKJ) baliagarria den proban, eta arratsaldean, 15:45ean, proba nagusia jokatuko da -15:45ean emakumezkoak eta 16:00etan gizonezkoak.



Aurreko urteko proban, Sakana Triatloi Taldekoak lehia. ARTXIBOA

Goizean txikienak, Txikian

Kategoria txikikoak -125 daude izena emanda-Txioka haur ikaslareren inguruetan prestatutako zirkuituan lehiatuko dira, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria izango den proban. Aurrebenjaminak 10:30ean hasiko dira (250m-1 km-125 m), benjaminak

10:50ean (500 m-2 km-250 m), kimuak 11:30ean (1 km-4 km-500 m) eta haurrak 12:00etan (2 km-8km-1 km). Juniorrek eta kadeetek helduen proban parte hartuko dute, helduen distantzia bera eginez.

Arratsaldean helduak: 5 km-22 km-2,5 km

VIII. Altsasuko Copreci Duatloia arratsaldeko 15:45ean abiatuko da Foruen Plazatik. 15:45ean emakumeek ekingo diote probari eta 16:00etan gizonezkoek.

Aurreko urteetako ibilbide berbera izango du probak. Altsasuko herri gunean prestatutako 2,5 km-ko zirkuituari bi bira eman beharko dizkiote korrika, segidan Iortia Kultur Gunearen aurrean dauden boxetan, trantsizio gunean, bizikleta hartu eta 22 km-ko distantzia osatzeko. Hasieran, duatletek Olaztiraino joko dute, Urbasako portua igotzen hasi, eta Altamirako bidegurutzetan beherako bidea hartuko dute, Altamira jaitziz. Altsasu zeharkatuta NA-1000 errepidean aurrera egingo dute, Zegama Ortzaurreko bidegurutzetara. Bertan buelta osoa hartuko dute, Altsasuko boxetara joan arte. Bukatzeko, bizikleta utzi eta 2,5 km-ko zirkuituari bira bat eman beharko diote korrika, Foruen plazako helmugara iristeko. Ez dute eguraldi onik iragarri eta horrek izugarri zailduko du proba.

216 duatleta proba nagusian

Aurreko urtean 128 duatletek hartu zuten parte eta Pello Osoro (1:04:39) eta Lourdes Oiartzabal (1:16:36) izan ziren azkarrenak. Atzo Guaixeko erredakzioa ixtarakoan Nafar Kirol Jolasetan 125 duatleta eta helduen proban 216duatleta zeuden izena emanda. Beraz, helduen mailan izugarri igo da parte-hartzea. Duatloia zuzenean jarraitzeko proba polita da eta gertutik jarraitze- ra joateko gonbitea egin du Sakana Triatloi Taldeak.

Sariak

Lehen gizonetako eta emakumezkoek produktu loteak eta garai- kurra jasoko dituzte eta bigarrenek eta hirugarrenek trofeoak. Lehen juniorrek, lehen 23 urtez azpikoek, lehen beteranoek eta lehen sakandarrek trofeoa jasoko dute eta talde onenak ere oroigarria jasoko du.

www.navarratriathlon.com

Izena ematea eta probaren informazio guztia. Informazio gehiago www.sakanatri.com web gunean.

Arbizuko Duatloia, ate joka

Altsasukoari txanda hartuz, hurrengo astean, martxoaren 24an, Arbizuko Duatloi beteranoaren 22. edizioa jokatuko da. Hainbat aukera daude: betiko ibilbidea (8 km korrikan, 32 km bizikletan eta 4 km korrikan), Ibilbide herrikoa, gazteen kategoria eta paratriatletak (betiko ibilbidearen erdia) eta erreleboak bikoteka (8 km-32 km-4 km). Izena ematea zabalik dago martxoaren 19ra arte, www.navarratriathlon.com edo www.rockthesport.com web gunetan.

DUATLETEK INDARRAK BERRESKURATU ETA MASAJEA HARTZEKO AUKERA IZANGO DUTE BUKAERAN

Nafarroako Txapelketa: Sakana Triatloi Taldea podiumean nagusi

DUATLOIA Sergio Garcia de Eulate hirugarrena eta Pitxi Gomez, Peio Bergara eta Iñaki Gallego txapeldunak

Igandean VI. Aranguren Bailarako Duatloia jokatu zen (5 km korrikan, 20 km bizikletan eta 2,5 km korrikan), aldi berean Nafarroako Banakako Sprint Triatloi Txapelketa zena. 227 duatletek parte hartu zuten, tartean 14 sakandarrek. Horietatik 13 kide Sakana Triatloi Taldekoak ziren.

Lasterketa Kirol Bat taldeko Xabier Arteagak (58:38) eta Nuria Rodriguezek (1:08:31) irabazi zuten, eta Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate hirugarrena sailkatu zen

(59:12), podiumera igoz. Nafarroako Banakako Txapelketan hirugarrena izan zen altsasuarra. Bere hiru taldekide ere igo ziren podiumera: Francisco Javier "Pitxi" Gomez lehena sailkatu zen beteranoen 1. mailan (1:02:11), Peio Bergara lehena izan zen beteranoen 2. mailan (1:18:19) eta Iñaki Gallego lehena sailkatu zen PTS5M mailan (1:20:50). Hirurak euren kategorian lehen nafarrak izan ziren, Nafarroako txapeldunak, eta Arangurengo podiumak kolore laranja izan zuten.



Podiumera igo ziren sakandarrak Arangurengo helmugan. UTZITAKOA

Kategoria txikiak

Aurretik kategoria txikiko probak jokatu ziren. Bertan ekin zioten denboraldiari Sakana Triatloi Taldeko duatleta gazteek. Aurrebenjaminetan Oihan Andueza bigarrena sailkatu zen,

kimuetan Ekain Imaz hirugarrena eta Alain Razkin seigarrena, eta, azkenik, haurren emakumezkoetan Nahia Imaz bosgarrena eta gizonezkoetan Hegoi Lakuntza bosgarrena eta Xabier Borrega hamabigarrena.

Sakandarrak Arangurenen

Arangurengo Duatloia _ Nafarroako Banakakoa

1. Xabier Arteaga:	58:38
3. Sergio G. Eulate (Sak.):	59:12
14. Javier Borrega (Sak.):	1:02:11
17. Pitxi Gomez (Sak.):	1:02:11
19. Ivan Sobredo (Sak.):	1:02:14
21. Gorka G. Eulate (Sak.):	1:02:31
37. J.C. Gomez (Sak.):	1:03:44
76. Isidro Asurab. (Sak.):	1:05:42
80. Mikel Astiz (Hiruki):	1:06:20
134. G. Chamorro (Sak.):	1:12:13
156. G. M. de Albeniz (Sak.):	1:18:19
157. Peio Bergara (Sak.):	1:18:19
170. Iñaki Gallego (Sak.):	1:20:50
175. A. Lizarraga (Sak.):	1:25:39

*Juan Luis Maizak matxura izan zuen

Emakume, igandean Lilasterketa Altsasun

ATLETISMOA Igandean, 12:00etan, Altsasuko Foru plazak emakumeendako V. Lilasterketa hartuko du. Oinez, korrika, patinetan, bizikletan... emakumeak proba ez lehiakor honetan parte hartzera animatu dituzte

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunean antolatutako ekitaldien barruan, Altsasuko Udalak, Berdintasun Zerbitzua-ren bitartez, V. Lilasterketa antolatu du. Donostiako Lilatoi arrakastatsua Sakanara ekartzeko antolatu zen ekimena eta aurten bosgarren urtez jarraian antolatuko da.

Ez lehiakorra

Lilasterketa igandean abiatuko da Altsasuko Foru plazatik, 12:00etan. Jakinaenez, berdintasunaren aldeko lasterketa hau ez da proba lehiakorra izango. Korrika, oinez, patinetan, aulkixoetan, gurpildun aulkian... norberak ahal duen moduan osatuko du ibilbidea, helburua emakumeen parte-hartzea sustatzea delako. Antolakuntzak 0 eta 99 urte bitarteko emakume guztiei egin die bertan parte hartzeko deia.

Probak San Silbestrearen ibilbide antzekoa izango du, 4 km ingurukoa. Oinezkoek itzuli bat emango diote zirkuituari (2 km inguru), korrikalariek 2 itzuli (4 km inguru) eta irristalariek eta txirringulariek 3 itzuli (6 km inguru).

Lasterketarekin emakumeak protagonistak direla erakutsi nahi da, giro ederrean. Bukaeran



Bakoitzak nahi duen moduan, baina Lilasterketara ateratzea animatu dute.

parte-hartzaileendako hamaike-takoa izanen da.

Izena ematea, dohainik

Aurreko urtean 77 emakume parte hartu zuten emakumeen aldeko proban. Izena ematea dohainik da, aurretik Emakumeen Bilgunean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net) edo bestela, egunean bertan, 11:30etik aurrera Gure Etxean.

Aurreko urteko Lilasterketan antolakuntzak Dantzaleku Sakanara klubari errekonozimendua egin zion, atletismoan emaku-

mearen parte-hartzea bulkatzea-gatik. Igandean jakingo da aurtengo talde edo pertsona omen-dua nor den.

Nola sustatu emakumeen partaidetza kirol elkarteetan?

Gai hori aztertzeko hitzaldia antolatu du Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuak martxoaren 20an, asteartean, 19:00etan, Iortia Kultur Gunean. Martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekitaldia da honakoa eta kirol elkarteetan emakumeen presentzia bulkatzea nahi du.

Sakana Patin klubaren aurkezpena bihar Olaztin

PILOTA Larunbatean, goizeko 11:00etatik aurrera, Olaztiko Kultur Etxean

Sakana Patin irristaketa taldeak 2018 denboraldiko aurkezpena egingen du bihar, larunbatean, goizeko 11:00etan, Olaztiko Kultur Etxean. Aurkezpenarekin batera, Sakanako irristalariek aurten erabiliko duten ekipazioa

eta jantziak erakutsiko dituzte Olaztiko ekitaldian.

Bestalde, aipatzekoa da larunbatean Iruñeko San Juan instalazioetan izandako irristaketa lasterketan Enara Perez olaztiarra bigarrena sailkatu zela ema-

kumezkoen aurrebenjaminen mailan eta Gaizka Flores olaztiarra hirugarrena sartu zela gizonezkoen aurrebenjaminen mailan. Kimuen emakumezkoen mailan Iratxe Lapuente ziordiarrek bigarren postuan gurutzatu zuen helmuga. Sakana Patin taldekoak pozik daude lortutako emaitzekin, baina bereziki neska-mutilak kirol honekin gozatzeko dutela ikustean. Hurrengo zita igandean dute gure irristalariek, goizeko 10:00etan, Amaia klubeko patinodromoan.



UTZITAKOIA

Mercero, Espainiako bigarrena

ATLETISMOA Asteburuan Espainiako Beteranoen Atletismo Kros Txapelketa jokatu zen Avilan, Candedan (6 km). "Lokatza, ura, kaxkabarra... denetatik izan genuen" adierazi digu aurki 79 urte beteko dituen Joxemari Mercero. Arsenio Gomezek irabazi zuen 75 urtetik gorako txapelketa (32:36), eta unanuarra bigarrena sartu zen (35:37).



UTZITAKOIA

Nazabal eta Arbizu txapelkunak

PILOTA Euskal Kluben Ligako finalak jokatu ziren asteburuan, 9 final guztira, eta bi txapel Sakanara iritsi dira. Hain zuzen ere, 22 urtez azpiko gizonezkoen eskuz binakako finalean, Irurtzun klubean dabilzan Urtzi Nazabalek eta Aaron Arbizuk 22 eta 11 irabazi zieten Oberenako Jon Rekarteri eta Pablo Cordoni, larunbatean Lakuan jokaturako final ederrean.



Osasuna Magna Kopa hasteko ilusio handiarekin zegoen atzo. Espero dezagun ilusioak jarraitzea. XOTA

Espainiako Kopa nola hasiko zen berdeendako?

ARETO FUTBOLA Atzo hasi zen Areto Futbolako Espainiako Kopa, Madrilen. Osasuna Magna Xotak Inter Movistar izan zuen arerio, kopa irabazteko faboritua, eta ez dakigu berdeak final erdietarako sailkatu ziren ala ez

Aurreko ostiralean, Areto Futboleko Lehen Mailako ligako

partida jokatu zen. Osasuna Magna Xotak 1 eta 4 irabazi zion

Palma Futsali Mallorcan jokatutako partidatan. "Hau garaipen

oso garrantzitsua da guretako, eta talde on bati 1 eta 4 irabaztea, asteburuan jokatuko den Espainiako Kopara joateko modu bikaina da" nabarmendu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

Lehen mailako lider Movistar Inter da (59 puntu). Osasuna Magna laugarren postura igo da (49 puntu). Asteburu honetan ez da ligako jardunaldirik jokatuko, Espainiako Kopa jokatuko delako.

Espainiako Kopa

Atzo hasi zen Espainiako Kopa, Madrilgo Wizink Centerren. Final laurdenetan, atzo gauean, lehen mailako lider eta Kopa irabazteko faboritua den Inter Movistarren kontra aritzea egokitu zitzaion Osasuna Magna Xotari. 300 nafar baino gehiagoren babesia izan zuten berdeek, baina ez dakigu nork egin zuen aurrera. Beste partidatan, Palma Futsalek El Pozo Murcia izan zuen arerio, eta gaur Plasticos Romero Jaenen kontra ariko da eta Barcelona Lassa Rios Renovablesen aurka. Finalerdiak bihar jokatuko dira eta final handia igandean.

Andra Mari eta Iñigo Aritza ongi Antsoingo 3. jardunaldian

HERRI KIROLAK Igandean Nafarroako Kirol Jokoen 4. jardunaldia jokatuko da Igantzín edo Beran

Antsoainek Nafarroako Kirol Jokoen 3. jardunaldia hartu zuen igandean. Nafarroako 11 kirol taldetatik sortutako makina bat talde lehiatu ziren, tartean Sakanako Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastolakoetakoak. Hasieran kimuen, haurren eta kadeteen mailtako herri kirol proba konbinatuak jokatu ziren eta, ondoren, sokatira txapelketak.

Herri kirol proba konbinatuetan, kimuen mailan 17 talde lehiatu ziren, 5 multzotan banatuta. Igantzi izan zen talderik azkarrena. Andra Mari 5 bigarrena sailkatu zen, Andra Mari 7 seigarrena, Andra mari 3 zazpigarrena, Iñigo Aritzako Gainsol zortzigarrena, Andra Mari 6 bederatzigarrena, Iñigo Aritzako Bargagain hamaikagarrena, Andra Mari 2 hamabigarrena, Iñigo Aritzako Intsusburu

hamalauargarrena, Andra Mari 4 hamabosgarrena eta Andra Mari 1 hamazazpigarrena.

Haur mailako proba konbinatuan 13 talde lehiatu ziren, lau multzotan. Andra Mari 3 gailendu zen. Andra Mari 2 hirugarrena izan zen, Iñigo Aritza seigarrena eta Andra Mari 1 bederatzigarrena. Eta kadete mailan 4 talde lehiatu ziren. Basaburua izan zen onena, Iñigo Aritza bigarrena eta Andra Mari hirugarrena.

Sokatiran, haur mailan (480 kilo) 12 talde lehiatu ziren, hiru multzotan. A multzoan Iñigo Aritzak eta Berriozarrek berdindu egin zuten (3,5 puntu) eta Andra mari 2 laugarrena sailkatu zen. B multzoan, Andra Mari 3 (4 puntu) eta Andra Mari 4 (3 puntu) izan ziren lehenak. Eta C multzoan Basaburua gailendu zen (4 puntu). Andra Mari



Herri kirolariek dena eman zuten Antsoainen.

1 laugarrena sailkatu zen (puntu 1). Bukatzeko, kadeteen mailan (540 kilo) 5 talde lehiatu ziren eta Basaburua izan zen onena (5 puntu). Andra Mari 1 bigarrena sailkatu zen, Iñigo Aritza hirugarrena (3 puntu) eta Andra Mari 2 laugarrena (2 puntu).

Laugarrena, Igantzín edo Beran Nafarroako Kirol Jokoen 4. jardunaldia igandean jokatuko da, goizeko 10:30etik aurrera. Eguraldi ona eginez gero, Igantzín hartuko du jardunaldia, eta eguraldi txarra badago, Berako Eztegarra Pilotalekuan jokatuko da saioa.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
San Jorge – Lagun Artea	4-2
Ardoi B – Etxarri Aranatz	1-0

SAILKAPENA	
1. Lagunak	45
12. Lagun Artea	24
14. Etxarri Aranatz	20

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
16:30	Lagun Artea – Ardoi Lakuntza
16:45	Etxarri – Amigó Etxarri Aranatz

Partida lehiatuan, Zubiriak eta Enekok Lagun Artea aurreratu zuten, baina San Jorgek markagailuari buelta ematea lortu zuen, garaipena lortuz. Bestalde, Ardoiren eta Etxarriren partida borrokatuko azken minutuan, Ardoik garaipenaren gola sartu zuen. Punturik gabe itzuli ziren gureak.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Berriozar – Altsasu	3-2

1. FASEKO SAILKAPENA	
1. Berriozar	39
5. Altsasu	35

IGOERA FASEA. PARTIDUA	
LARUNBATEAN	
17:45	Burladés – Altsasu Ripagaina

Erregional mailako lehen fasea despeditu da eta Altsasu igoera faserako sailkatu da. Igoera faseko lehen aurkaria Burladés izango du, bihar Ripagainan.

ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK	
Ageri – Zaldúa	(atzeratua)

SAILKAPENA	
1. Unziti	50
4. Zaldúa	31

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
Zehaztu gabe Zaldúa – Elomendi Lekunb.	

Zalduak laugarren postuari eusten dio.

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Ardoi – Altsasu	1-1

SAILKAPENA	
1. Berriozar	64
13. Altsasu	15

IGANDEAN	
17:00	Altsasu – Iruntxiki Dantzaleku

Emakumezkoen Erregional mailan, Ardoiren kontra bana berdindu zuten Altsasuko neskek. Asteburu honetan sailkapenean azkena den Iruntxiki taldea hartuko dute altsasuarrek. Partida Dantzalekuan jokatuko da, igandean.



Ohiko kirolez gain, Sakanan errugbia sustatu nahi du Mankomunitateak aurten. Nafarroako Errugbi federazioak ikastetxeetan formazioa eskainiko du. UTZITAKOIA

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak udarako antolatzen dituen campusen berri eman du. Orain arteko bi campusek jarraipena izango dute aurten: futboleko campusa uztailearen 2tik 14ra bitartean luzatuko da, Altsasuko Dantzalekun. Futbol campusa despedituta, uztailearen 16tik 27ra burutuko da triatlói campusa, Altsasun. Aurtengo nobedadea errugbi campusa izango da, ekainaren 11tik 15era Etxarrin jokatu dena.

Futbol campusa, uztailearen lehen hamabostaldian

Sakanako Mankomunitateko futbol campusa uztailearen 2an hasiko da. Uztailearen 2tik 7ra lehendabiziko txanda izanen da, 2008an, 2007an eta 2006an jaiotako neska-mutilendako. Hurrengo astean, uztailearen 9tik 14ra, 2005ean, 2004an eta 2003an jaiotakoak trebatuko dira futboleant.

Iokin Lobo eta Aitor Lara izango dira entrenatzaileak. Egunean goizeko 9:30etik 14:00etara arituko dira gazteak futboleant trebatzen. Teoria eta praktika uztartuko dituzte, eta kategoria bakoitzari dagozkion gaiak aztertuko dituzte neska-mutilekin. Campusa bukatzerakoan igerilekura joango dira, eta irteera egingen dute Donostiara, Anoeta, Errealaren egoitza ikustera.

Gehenez ere 30 parte-hartzaile onartuko dira txanda bakoitzean; beraz, futbol campusean

Futbola, triatlói eta errugbia

FUTBOLA / TRIATLÓIA / ERRUGBIA Mank-eko Kirol Zerbitzuak aurtengo udarako kirol campusen berri eman du. Futbolaz eta triatlóiaz gain, aurten errugbi campusa eskainiko da, aurrenekoz. Astelehenean, martxoaren 19an zabalduko da izena ematea

interesa dutenei lehenbailehen izena ematea aholkatzen du antolakuntzak. Tokia gordetzeko ordainketa agiria aurkeztu behar da Sakanako Mankomunitatean, izena eman ondoren. Beharrezkoa balitz, kirol zerbitzuak itxaron zerrenda egingo du.

Triatlói campusa, uztaileko bigarren hamabostaldian

Mank-ek antolatutako triatlói campusa uztailearen 16an hasi eta 27an despedituko da. 8 urtetik 16 urte bitarteko gazteek eman dezakete izena korrika, igeriketa eta txirringularitza

HIRU CAMPUSETAN IZENA EMATEKO EPEA ASTELEHENEAN ZABALDUKO DA, MANKOMUNITATEAN

batzen dituen kirol honetan. Goizeko 11:00etatik 13:00etara, Aitor Mozo eta Urko Berdud begiraleekin trebatuko dira neska-mutillak. Atletismoa, igeriketa eta txirringularitza elkartzan dituen jarduerak honetan, teoria eta praktika uztartuko dituzte, eta kirol batetik bestera egin beharreko trantsizioak nola egin behar diren ere landuko dute. Sakanako Mankomunitateak uztailearen 21ean Sakanako XVI. Triatlói antolatuko du, eta bertan aritzeko aukera izango dute campusean ariko diren gazteek.

Aurtengo berrikuntza: errugbi campusa, ekainean

Aurten, nobedade moduan, errugbi campusa eskainiko du Sakanako Mankomunitateak. "Aurreko urtean errugbi campusa antolatzeko urdiaindar baten proposamena jaso genuen. Au-

rrekontua itxia zegoen, baina proposamena interesgarria iruditu zitzaigun eta aurten errugbi campusa antolatzea erabaki dugu. Etxarri Aranatzan izango da, San Donato futbol zelaietan" azaldu digu Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. "Etxarriko Udalarekin eta Etxarriko futbol taldearekin jarri ginen harremanetan, bertako zelaia erabiltzeko baimena eskatzeko, eta eurek ere ekimena oso interesgarria jo zuten. Tartean, Etxarri Aranatzan bizi den eta aurreko urtera arte Durangoko emakumeen errugbi

NAFARROAKO ERRUGBI FEDERAZIOAK SAKANAKO CAMPUSA SUSTATUKO DU

taldeko entrenatzailea zen Gorka Garaterekin jarri ginen harremanetan, eta errugbiaren inguruan sakondu genuen berarekin" gaineratu du kirol teknikariak.

Errugbi campusa ekainaren 11tik 15era izanen da, 15:00etatik 19:00etara. 8 urtetik 16 urte bitarteko neska-mutilei dago zuzendua. Egokitutako errugbi-zinta landuko da batez ere, eta teoria eta praktika uztartuko dituzte.

Nafarroako Errugbi Federazioa, oso interesatuta

Amaia Gerrikagoitiak nabarmendu duenez, Nafarroako Errugbi Federazioak oso begi onekin hartu du campusa. "Sakanan errugbia sustatzen oso interesatuta dago federazioa. Horrela, eta campusa bulkatzeko, apirilaren bigarren hamabostaldian federaziotik Sakanako hainbat ikastetxetara etorriko dira errugbia zer den, nola jokatzeko den eta errugbiak sustatzen dituen balioen berri ematera" azaldu du kirol teknikariak. Sakanako ikastetxe guztiei egin zieten proposamena, baina Olaztiko eskolak, Iñigo Aritza ikastolak, Zelandik, Korazonistak, Andra Mari ikastolak, San Donato eskolak, Lakuntzako eskolak eta Uharte Arakilgoak baiezkoa eman zuten eta euren ikastetxeetan egingo dute azalpena. "Errugbiak errespetua bezalako balore oso garrantzitsuak sustatzen ditu eta oso kirol interesgarria da. Halaber, Mankomunitateak eskuorri bat prestatzen ari gara, errugbia zer den, nola jokatzeko den eta transmititzen dituen baloreak erakusteko" gaineratu du teknikariak.

Izena ematea astelehenean zabalduko da

Aipatu campusetan izena ematea astelehenean, martxoaren 19an zabalduko da, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus, www.sakana-mank.eus). Futbol campusaren prezioa 45 eurokoa da (campusa eta Anoeta irteera), triatlói campusarena 40 eurokoa eta errugbi campusarena 35 eurokoa. (ES 453035 0116 93 1160003328, Euskadiko Kutxa) Ordaintzerakoan partaidearen izen abizenak eta aukeratutako campusa zehaztu behar da.

Odei Juango, Nafarroako elite txapelduna

TXIRRINDULARITZA Igandean Cirilo Zunzarren Oroimenezkoa jokatu zen Lizarran, Nafarroako Txirrindularitza Txapelketa. Lakuntzarra elite mailako txapelduna izan zen eta Eneko Aramendia iturmendierra 23 urtez azpiko hirugarren nafarra

Igandean Cirilo Zunzarren Oroimenezko lasterketa jokatu zen Lizarran, elite mailako eta 23 urtez azpiko Nafarroako Txapelketa zena (134 km). Lasterketa Baqué Ideus BH taldeko Diego Perezek irabazi zuen (3:15:00), esprintean. Lizarteko Sergio Araiz 5.a sartu zen, 1:20ra, eta berak irabazi zuen Nafarroako 23 urtez azpiko txapelketa. Maila horretan, hirugarren nafarra Rural Kutxako Eneko Aramendia iturmendierra izan zen. Elite mailan, Rural Kutxatik aurtan Telcom Ederlan taldera joan den Odei Juango lakuntzarra izan da Nafarroako txapelduna.



Telcom taldearekin hasi da aurtan Juango eta Nafarroako txapelduna da. UTZITAKOA

Etxeberría bigarrena Tafallan

Igandean juniorren mailako lasterketa jokatu zen Tafallan (82 km). Esprintak erabaki zuen irabazlea, Aseguras taldeko Sergio Trueba (2:03:37). Intersport Irabiako Josu Etxeberria 2.a sartu zen, bere taldekide Beñat

Etxezarreta 5.a eta Quesos Albeniz taldeko Mateo Gonzalez 10.a, denbora berean. Urko Gorriti (I.I.) 13.a sartu zen, Ailetz Lasa (Q.A.) 16.a, Inhar Astiz (I.I.) 28.a, Iker Cerviño (I.I.) 29.a, Jon Gil (El Caserio Valsay) 38.a,

Imanol Galarza (I.I.) 46.a, Andoni Urria (I.I.) 47.a, Javier Mitxaus (I.I.) 54.a, eta Diego Gonzalo (Q.A.) 59.a. Talde onena Intersport Irabia izan zen eta mendiko sailkapena Urko Gorritik irabazi zuen.

Alberdi, Mintegi eta Aznar lehenak Aiaran

Larunbatean kadeteen XXIX. Aiarako Birako 3. etapa jokatu zen Artziniegan (44 km). Aralarko Intersport Irabiako Aitor Alberdik Bira honetako bigarren garaipena lortu zuen, helmugara bakarrik iritsita. Burundako Quesos Albenizko Iker Mintegi bigarrena sartu zen, 1:07ra, eta bere taldekide Unai Aznar hirugarrena 1:37ra. Hugo Aznar (Q.A.) 6.a sartu zen, Igor Arrieta (I.I.) 16.a, Sergio Lopez (Q.A.) 28.a, Martzel Etxeberria (I.I.) 52.a, Antonio Gonzalez (Q.A.) 58.a, Jon Chamorro (Q.A.) 59.a, Miguel Gil (Q.A.) 75.a eta Jon Erdozia (I.I.) 86.a. Intersport Irabia izan zen talde onena, Mendiko sailkapena Aitor Alberdik irabazi zuen eta Tarteko Helmuga Unai Aznarrek.



Aitor Alberdi eta Iker Mintegi, ihesaldian. UTZITAKOA



UTZITAKOA

Zumbathon solidarioa Arbizun

ZUMBA Hurrengo astean, martxoaren 24an, bularreko minbiziaren kontrako zumbathon solidarioa antolatu dute Arbizuko kiroldogian. 5 monitoren gidatuko dute saioa eta euren zaletasunaz, zumbaz gozatzeaz aparte, minbiziaren aurkako borrokarako diru bilketa egitea da euren nahia. Parte-hartzaileek 5 euro eta ikusleek euro bat ordainduko dute.



BAHRAIN MERIDA

Izagirre hirugarrena Paris-Nizan

TXIRRINDULARITZA Movistar Team taldeko Marc Solerrek irabazi zuen Paris-Niza eta Ziordian bizi den Gorka Izagirre (Bahrain) hirugarrena sailkatu zen, 14 segundora. Garaipena ere eskura izan zuen, baina bera eta bere anaia Ionek erorikoa izan zuten. Bestalde, Soler liderraren alde lan izugarria egin duen Hiriberriko Imanol Erbiti 44.a sailkatu zen.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 16

ARBIZU Emakumeak eta kartzela mahai-ingurua.
18:00etan, udaletxeko batzar-gelan.

URDIAIN Komiki lantegia Mattinekin, aurretik izena eman behar da.
18:00etan, liburutegian.

ALTSASU Top chef ostiralak.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunea.

ZIORDIA BookTubeak egiteko kedada DBHko ikasleendako, Sakanako Mankomunitateak antolatuta.
18:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ALTSASU Dantza emanaldia eskainiko dute Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasleek.
19:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN En el estanco, Irurtzungo antzerki tailerraren lana.
20:00etan eta 22:30etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Sofi Oksanenek Purga liburuz hizketatuko dira Olatzagutiko irakurle

taldeko kideak.
21:00etan, liburutegian.

ALTSASU El cuaderno de Sara filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Zuriñe eta Fran, Hesian taldeko kideek emanaldi akustikoa eskainiko dute.
23:30etan, Barandi tabernan.

LARUNBATA 17

ALTSASU Altsasu eta Estibalitz arteko 92 km-ko joan-etorria eginen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepide atalekoek.
9:30etan, San Juan plazatik.

BURUNDA Iruritako gaztelura martxa, Ernaik antolatuta.
10:00etan Bakaikutik eta Iturmenditik, 10:45etan, Urdiaindik eta Altsasutik.

UHARTE ARAKIL Jostailuen trukaketa azoka.
11:00etatik 13:00etara, plazan.

IRURTZUN Larrazpi gazte elkartearen eguna.
14:00etatik aurrera, Larrazpin.

UHARTE ARAKIL COPEL: una historia de rebeldía y dignidad dokumentalaren emanaldia. Ondoren, COPELeko kide-ohi baten, dokumentalaren zuzendari laguntzailearen eta preso egondako libertario baten arteko solasaldia, GTZK taldeak antolatuta.
16:30etan, Anaiak tabernan.

ALTSASU Gure gorputzak zainduz. Auto-irudia lantzeko tailerra.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdia.
18:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN En el estanco, Irurtzungo antzerki tailerraren lana.
20:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Flamenko gaua Angel Ocray, Tania Garcia eta Keko Galindorekin.
20:00etan, Sorginak tabernan.

IRURTZUN Katez, Rotten XIII, Txartoak, Ingo al deu? Eta Dj Jo ta Txo.
22:00etan, Larrazpin.

IGANDEA 18

ALTSASU Butroiko gaztelua, 41,5 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.
07:15etan, abiatuko dira euren egoitzatik.

IRURTZUN Aixita, Gaztelu eta Garaño mendi ibilaldia antolatuta du Iratxok.
7:45etan, elkartetik.

ALTSASU Izaga haitzera igoko dira Altsasuko Mendigoizaleak.
08:00etan, egoitzan.

ALTSASU 30 elefantes bajo un paraguas antzezlanak dakar La Petita Malamuga konpainiak. 0 eta 3 urte arteko haurrendako emanaldia, saio bakoitzean 100 ikusle izanen dira.
11:00etan eta 12:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Lilasterketa, emakumezkoendako lasterketa ez lehiakorra.
12:00etan, Foru plazan.

ALTSASU Harpetarra filmaren emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU En tierra firme filmaren emanaldia.
17:30etan eta 19:40etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN En el estanco, Irurtzungo antzerki tailerraren lana.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU El cuaderno de Sara filmaren emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 19

UHARTE ARAKIL Gurasoendako sexu heziketa tailerra, gizarte zerbitzuek antolatuta.
15:00etan, eskolan.

IRAÑETA Izarraren beilatoki zerbitzuek ariko da Mikel Legarra, Astelehen Zoriontsuak-ek antolatutako saioan.
19:30etan, Txapel Azpi elkartearen.

ASTEARTEA 20

ALTSASU Begoña Pro Iriartek Bajo las cenizas de la Navarrería liburua aurkeztuko du. Arkatz liburu-dendan jaso daitezke gonbidapenak.
19:00etan, Haritza tabernan.

ALTSASU Nola sustatu emakumeen partaidetza kirol elkarreetan mahai-ingurua.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 22

ALTSASU Thi mai: Rumbo a Vietnam filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Pentsio duinen alde.
19:30etan, udaletxe parean.

ZORION AGURRAK



Onintza

Zorionak eta segi beti bezain alaitu. Ospatuko diau helduen astien.

Lexuri

Dantzari, txirulari. kirolari... eta orain ere sukaldari!! Zorionak potxola!!! Ospatu eguna ahal bezain ongi!



Lexuri Lazkoz Ruiz

Zorionak bihotz! Astelehenean jaso itzazu 10 muxu goxo. Opari asko jaso eta beti bezain ikasle ona eta zintzoa izaten jarraitu. Muxu pila bat familia guztiaren partez.



IRURTZUN Tendremos que dar que hablar para que se nos vea izenburuko erakusketa jarri dute pintura tailerreko kideek.
Martxoan, Tahonan eta Pikuxarren.



ALTSASU BirzikiART erakusketa, Iñigo Aritza eta Txioka haur ikastolek antolatuta.
Martxoaren 16tik 28ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.



IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK
ERRENTAN

Sakanan etxe bat lorategiarekin alokatzen da. Tel 690 34 39 78.

OHARRAK

Olatzagutiko irakurle taldea. Martxoaren 16an, ostiralean, 21:00etan liburuetan elkartuko dira Sofi Oksanenen *Purga* liburua inguruan hizketatzeko.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Otdadiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko dituzte.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkartek langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun ko-

purua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikari. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonotara hots egin dezate.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpos-

tua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30eko ekimenaren parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Juan Jose Salaberri Galbete

Betiko izango zaitugu gogoan

Olaztiko zure kintoak

URTEURRENA



Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea



I. urteurrena

Urteurrenako meza, igandean, martxoak 18 eguerdiko 12:00etan Bakaikuko San Juan Bautista elizan

Jada urte bat pasa da gure artetik joan zinenetik, eta sinestezina da etxera iristean zu ez ikustea.

Nahiz eta urrun egon gu oso gertu sentitzen zaitugu. Asko maite zaitugu.

Etxekoak

URTEURRENA



Salvador Lopez de Zubiria Goikoetxea



I. urteurrena

Joan zinen gu hemen utzita, baina jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.

Bakaikuko zure ehiztari kuadrila

URTEURRENA



Xabino Garmendia Iriarte



III. urteurrena

Lau teiltatu gainean ilargia erdian eta zu goruntz begira...

Etxekuek

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

JAIOTZAK

- **Amir Chafia Ouassaid**, otsailaren 26an Irurtzunen.
- **Mikel Oraa Vilas**, otsailaren 27an Altsasun.
- **Jaider Amaury Albarran Moenala**, otsailaren 27an Arbizun.
- **Janitz Berastegi Armendariz**, otsailaren 27an Arbizun.
- **Laia Lizarraga Berastegi**, martxoaren 7an Lakuntzan.
- **Wasim Boutazakha Boutzakh**, martxoaren 8an Irurtzunen.


HERIOTZAK

- **Maria Angeles Andueza Razkin**, martxoaren 6an Lakuntzan
- **Alfredo Etxeberria Orella**, martxoaren 8an Irurtzunen
- **Jose Angel Liziaga Galarza**, martxoaren 9an Etxarri Aranatzan


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 16




Larunbata, 17



Igandea, 18



Astelehena, 19



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

tanatorios
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

Birziklatzetik sortutako arte proiektua

Sakanako ikastolek bi urtetik behin arte proiektu bat lantzen dute. Iñigo Aritza ikastolako eta Txioka haur ikastolako haurrek sortutako lanak lortia kultur gunean ikusgai daude atzotik hilaren 28ra arte Altsasuko lortia kultur gunean

BURUNDA

Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastolek Txioka haur ikastolarekin batera bi urtetik behin arte proiektua lantzen dute euren ikasleekin. Aurtengoa laugarren aldia dute. Aurretik egindako erakusketen gaiak honakoak izan ziren: Sakanako artistak (2012), ibarreko idazleak (2014) eta Sakanako musikariak (2016). Haien obrekin lan egin ondoren aurtengoa birziklapena gaia hartu dute sorkuntza prozesuaren abiapuntu gisa. Burundako bi ikastoletako ikasleen sormen lanak *BirziklART* erakusketan daude ikusgai atzotik.

Iortia kultur gunetik pasatzen direnek adin desberdinetako ikasleen sormen lanak ikusteko aukera izanen dute: Txioka haur ikastolako 2 urtekoenak, Iñigo Aritza Ikastolako Haur Hezkuntzako 3,4 eta 5 urtekoenak, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. maila eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasleak.

Altsasuko Iortia kultur gunetik pasatzen den bisitariak lan plastikoak ikusteko aukera izanen du, hau da, eskulturak eta koadroak. Guztiak hondakinekin, berrerabilitako materialekin eginak. Horretarako, kartoia, papespana, plastikozko botilak,



Martxoaren 28ra arte ikusgai egongo da erakusketa.

paleak eta beste erabili dituzte ikasleek. Gainera, DBHko 3 mailako ikasle talde batek pertsona batek lau hilabetetan sortzen duen hondakin kopurua bildu du eta hori bera izanen da artelana.

Konpetentzien lanketa

Sakanako ikastolek euren arte proiekturako ingurumena hizpide hartu dute laugarren edizio honetan. Burundako ikastolen ordezkarari Jone Areta Urrestarazuk azaldu digunez, "artelaren sortze prozesuak inplika-

tzen duen arterako konpetentziaz aparte, diziplina barruko oinarritzko hainbat konpetentzia lantzeko aukera izan dugu: hizkuntza komunikaziorako konpetentzia, matematikarako konpetentzia, zientziarako konpetentzia, teknologiarako konpetentzia eta gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia. Baita metadiziplinarra den konpetentzia digitala ere".

Erakusketa horren ondoren Andra Mari ikastolak Etxarri Aranatzen antolatuko duena etorriko da.

Haurrak komikian trebatzeko aukera dute Urdiainen

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak haurrendako prestatu duen komiki lantegian zortzik eman dute izena. Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila bitartekoak dira denak. Iñaki Martiarena Otxotorena, Mattin, komikilari eta irudigile donostiarrarekin batera bederatzigarren artea, komikia, hobe ezagutzeko aukera izanen dute.



Mattinekin bi orduz ariko dira.

Gozategik maiatzerako iragarri du lan berria

Gozategi taldeko kideak, tartean Iñigo (baxua eta ahotsak) eta Imanol Goikoetxea (gitarra eta ahotsak) anai urdiaindarrak, estudioan daude kantu berriak grabatzen. Taldearen 8. diskoa dena maiatzerako kalean izanen dela aurreratu dute taldekideek baina euren sare sozialetan aurrerapen kantua jarri dute entzungai, *Zingel*.



Ainhoa Etxeberria Booktuberra. @EITB

Liburuendako bideo-emuak eginen dituzte Ziordian

DBHko ikasleak Booktubear egitera elkartuko dira gaur, 18:00etan, Ziordiko liburutegian

ZIORDIA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Booktubear egiteko juntadizoa antolatu du. Booktubeara egitera, momentuz zortzi gazte daude izena emanda. Gaur haiek liburu bati buruzko kritika edo iruzkina eginen dute, liburu baten irakurketa gomentatzeko norberak bere buruari egindako bideo-grabazioa eginen du, ondoren Youtuben zintzilikatzen dena.

Munduan barna arrakasta handia duen fenomenoak Sakanara ekarri du Zerbitzuak. Gaurko juntadizoa aparte apirilaren

20rako beste bat antolatu du Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Hura ere 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako izanen da. Izena eman nahi duenak intxostiapunta@altsasu.net e-postara idatzi dezake.

Euskara Zerbitzuak urtero antolatzen du Haur eta Gazteendako Maria Markotegi literatur lehiaketa. Aurtengoa berritasun bat sartu dute antolatzaileek: booktubeara kategoriatik. Ekimen horiek guztiak gazte artean irakurzaletasuna sustatzeko asmoz antolatzen ditu ibarreko erakundeak.

Vendettak urte akaberarekin batera agur esanen du

Hamar urteko ibilbidearen ondoren aurtengoa agur esateko urtetzat hartu du taldeak

SAKANA

Sare sozialen bidez jakinarazi zuen Vendettak bere erabakia pasa den ostiralean. "Bizitzan, liburuetan bezala, orriak pasa behar dira. Eta guretzeko beste bat pasatzeko garaia heldu da. Badakigu denak hasiera eta akabera duela". Taldekideen bizitzek "ibilbide desberdinak" hartu dituztela eta Vendettari agur esateko unea iritsi zaiola azaldu zuten; "tristura puntu" batekin, "baina asebetetze sentazio handiarekin, bizitakoagatik eta ilusio handia etorriko

denagatik". Taldea "gozatzeko eta gozarazteko" jaio zela eta "lortu dugun sentazioa" dute.

Luisillo Kalandrakak, Pello Reparazek, Javier Etxeberriak, Ruben Antonek eta Enriko Rubiñosek osatutako boskoteak post disko utzi ditu: *Vendetta*, *Puro infierno*; *Atzo*, *gaur eta bihar*; *13 balas* eta *Bother*. Oraindik ere Vendettarekin gozatzeko aukera izanen da aurtengoa. Hainbat kontzertu lotuta dituzte dagoeneko: gaur Donostian, bihar Gasteizen eta 24an Iruñean.



Dora Salazar bere eskultura batekin. ARTXIBOA

Dora Salazarren eskulturendako XVII. mendeko jauregi bat

Altsasuko eskultorearen lanak Zurbaoko Otalora Gebara jauregian daude, garagarriaren 3ra arte

ALTSASU

Gasteiz ondoan dagoen Zurbaon herrian dago Otalora Gebara jauregia. XVII. mendeko jauregia zaharberitu ondoren Mi castillo de arena izena eman diote kudeatzaileek eta han makina bat jarduera egiten dira. Baita erakusketak ere. Martxoaren 3tik garagarriaren 3ra arte Dora Salazarren lanak ikusgai izanen dira.

Eskultore altsasuarrak erakina aurri egoeran eta zaharberrituta ezagutzen du. Mi castillo de arenakoei bere tailerra zabaldu zien Salazarrek eta haiek izan ziren erakusketako piezak aukeratu zituztenak. Haiek izan ziren ere eskulturak jauregiko gela eta pisuetan barna kokatzeaz arduratu zirenak.

Erakusketaz

Arabako nobleen arkitekturak eta altsasuarraren eskulturak

garai desberdinetakoak badira ere lotura sortu da haien artean. Emaizarekin harrituta gelditzen Salazar. Bere garai desberdinetako eskulturak daude ikusgai. Baina erakusketan denak osotasuna duela uste du sortzaileak Batzuk serie aski ezagunetakoak, esaterako, *Venus, princesas*-ekoak. Kartoizko eskulturak, zintzilik dauden buruak, argi dirdiratsu ugari sortutako emakumezkoen gorpuak edo kalean jarrita dituen eskulturen inguruko proiektzioa ikus daiteke.

Eskulturen aukeraketa egiterakoan erakusketako antolatzaileek emakumezkoen irudien alde egin zuten eta haien kopurua nabarmena da erakusketan. Horrekin, emakumezkoak gizartean eta artean duen espazioa ikusarazi nahi izan dute. Erakusketak ikusgai dagoen bitartean erakusketara bisita gidatuak egingen dira.

Ihabardarrak adinduei buruzko ikuskizunean

Gaur, 20:00etan, Barañaingo auditorioan eskainiko dute "El baile de los años"

IHABAR

Ados teatroko Garbi Losadak eta Jose Antonio Vitoriak joan den urtean langabetuekin ikuskizuna muntatu zuten. Aurten, berriz, adinduak ardatz dituen emankizuna prestatu dute, belaunaldi desberdinetako pertsonekin. Batez ere dantza ikuskizuna da, Becky Siegelek koreografiatua.

Emanaldia prestatzeko hila-bete egon dira Barañaingo auditorioan, lanean aurrera eginez metodologia erabiliz ikuskizuna sortzen. 10 eta 20 urte inguruko haur eta gaztetxoekin batera adinduak daude. Eta haiekin batera hiru profesional: Txori Garcia Uriz, Montse Zabalza eta Ion Barbarin. Azken horrek Ihabarren castingaren berri eman zuen eta hura pasa eta gero parte hartzen ari dira Conchi Astiz, M^a Cruz Irurtzun eta Migel Anjel Irurtzun ihabardarrak.

Barbarinek azaldu digunez, zahartzaroari buruz hitz egiten da ikuskizunean: "adin batetik aurrera gizartean lekurik ez dutela, ekoizten ez dutelako". Hilaren 2an mustu zuten eta gaur, 20:00etan, emanen dute berriro. Antsoainen eta Atarrabian emanen dute ere.



ASTEKOA

KATRIN GINEA MUNDIÑANO

Emakume artistak



Aurtengo emakumearen eguna historikoa izan da. Herri osoa atera da kalera, eta bazen garaia, bada garaia gauzak aldatzen joateko. Bagoaz, pixkanaka bagoaz, gero eta azkarrago, eta argi utzi dugu ez garela geldituko. Bagoaz bidea zabaltzen.

Egun honen harira, beste herri askotan bezala, Arbizun ekitaldi pila antolatu dira, eta horietako bat herriko emakume artisten erakusketak izan da.

Herrian Bilgune feminista taldean lanean dabilzan emakumeek, herriko emakume sortzaile ezberdinei erakusketan parte hartzeko gonbita luzatu ziguten. Nere baiezkoarekin batera, beste 9 emakumeren baietza jaso zuten. Innoren kolore morez osatutako koadroa, Pagoak emakume ezberdinei egindako body painten argazki erakusketak, Iratxe eta Liberen ikusentzunen proiektua, Milaren koadro eta eskultura, Inmaren emakume baten bustoaren koadroa, Ramoniren instalazioa eta koadroa, Cristinaren 4 koadroak,

Argiñeren beste bi koadro eta nire argazkiekin egindako instalazioa.

Gaia ez ziguten inposatu. Gai librea, emakumeek sortutako artelanen erakusketak zen helburua, baina argi dago emakumeek badugula, gure emakume izatearen harrotasuna aldarrikatze gogoa. Obra guztiek baitute emakumearekin zirikusia; emakumearen edertasuna edo sufrimendua, baita emakumeek egunerokotasunean gizonengandik jasaten ditugun irainkeriak salatze gogoa.

Nire kasuan, Senegalera egindako bidaiako argazkiez baliatuz, emakumearen edertasuna, balioa eta lana islatu nahi izan ditut, bidaiari hari bezala hartuta. Bidaiari zergatik... ba bizitza bidai bat delako, bizitzan bide bat egiten dugulako, batzuetan bide edo bidai hori gozoa izaten da, baina beste askotan gazia. Bide gozoa gehienetan, baina gizonena baino gaziagoa askotan.

Beraz... Gora emakumeak, gora artea eta gora herria!!!

Orain eskolako dantzariak

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako ikasleak euren trebeziaren erakustaldiak egiten ari dira jendaurrean hiler. Musikako konboen eta ganberakoen emanaldiaren ondoren heldu da dantzarien gaurko 19:00etako emanaldia, lortia kultur gunean. Eskolak eta Etorikizuna dantza taldeak antolatuta larunbatean dantzariak kalean izan ziren.





"El Estanco" antzerkiaren azken entseguetan dabilta aste honetan zehar

Lapurrak estankoan, Irurtzango antzezleekin

Hori da Irurtzango antzerki tailerraren azken lanaren mamia. Gaur, 20:00etan eta 22:30ean emanen dute; larunbatean, 20:00etan eta igandean, 19:00etan, kultur etxean emanen dute "El estanco" antzezlan

IRURTZUN

Joan den urtean ezkontza batean gertatutakoak antzeztu bazituzten, aurten Irurtzango antzerki tailerrekoek lapurreta bat taularatuko dute: *El estanco*. Jose Luis Alonso de Santosek 1981ean idatzitako *La estanquera de Vallecas* antzezlanaren moldaketa egin du Angel Sagues zuzendariak eta dramaturgoak.

Gizarteak baztertutako hiru pertsona, lapurrak, estanko zahar batean lapurtzera sartzean hasten da guztia. Hura adineko emakume batek eta haren bilobak kudeatzen dute eta lapurrak ikustean oihu egiten dute. Oihuek jendea erakarriko dute. Eta polizia. Eta gobernadorea. Eskale batzuek gertatzen denaren kontakizuna egiten dute bitartean.

Estanko barruan gertatzen dena publikoak haren erakusle hotik ikusiko du. Eszenografia nahikoa sinbolikoa izanen da, "publikoak irudikatzeak aukera izan dezan"; mostrandorea eta gona-mahaia besterik ez da.

Gogor

Lastailean hasi zen antzerki tailerra lanean, asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara. Saguesek joan den urtean dozena bat aktore bere esanetara bazituen aurten hamar ditu. Eskarmentu handikoak guztiak ere. Tailerraren dinamikak berak hasieran antzerki teknikak lantzeran eraman zituen, baina berehala hasi ziren antzezlanaren prestatzen. Saguesek esan digunez, "Sekula ez da ikastez bukatzen, ikuskizun bakoitzarekin ikasten da. Egia da, eskarmentuarekin, batzuek hobeki ontzen dituztela pertsonaiak".

Astero entseztetik aste honetan egunero egitera pasa dira. Gogor aritu dira egunero, eszenografia, doinu banda, argia eta detaile guztiak prest egoteko. Irurtzango emanaldien ondoren, urtero uda partean Etxaurin egiten diren antzerki tailerren topaketan emanen dute berrito. Garesen eta Iruñeko El Bardon emateko aukera ere badago.

Tailerrekoekin hitz egin dezaket beste saioaren bat lotzeko.

Zein da zein antzezlanean

- **Txus Abad**, lapurra.
- **Peio Alzueta**, lapurra.
- **M^a Eugenia Barroso**, medikuz mozzoratutako polizia.
- **Goio Fernandez**, gobernadorea.
- **Txeli Garcia**, polizia eta moja.
- **Carolina Leiba**, lapurra.
- **Genma Matxain**, eskalea.
- **Betariz De Esteban**, biloba.
- **Tere Otxoa**, estankoko nagusia.
- **Zuriñe Serrano**, eskalea eta kazetaria.



Kantari txikiak Antsoaingo oholtzan. AMAIA DOMINGUEZ

Iortia kantuzaletasuna duten haur eta gaztetxoek plaza

Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari Jaialdiko 3. saioa ospatuko da bihar, 18:00etan, Altsasuko kultur gunean

ALTSASU

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, eta Amaia Dominguez antolatzaile dela, Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari Jaialdiak martxan dira. Jaialdien helburua da Nafarroako haur eta gaztetxoek euskararekiko eta kantuzaletasuna piztea, elkarlanean aritzen ikasiz, beste zentroetako ikasleekin harremanetan jarritz, norberaren arte eszenikoa kanporatuz eta musikarekin gozatuz.

Azken urteetan Sakanako jaialdiak Lakuntzak hartu izan ditu baina aurten lekukoa Altsasuri pasatu dio. Izan ere, Nafarroa Oinez ospatzen den herrian beti saioetako bat izaten baita urtero.

Aurtengo aurreneko bi jaialdiak ospatuta, larunbatean Altsasuk hartuko du kantari txikien jaialdi berria. Iortia kultur ginetik pasatzen direnek 76 kantari, haiek laguntzen 16 abeslari ikusteko eta entzuteko aukera izanen dute. Denen artean hamar kantuko erreperitorioa osatuko dute.

Parte hartzaileak

Iñigo Arizta ikastolako bi talde igoko dira oholtzara eta bina kantu eskainiko dituzte. 8 eta 9 urte arteko zortzikoteak *Aurreira Altsasu!* eta *Haizearen herria* kantak abestuko ditu gitarraz, teklatuaz eta txirulaz lagunduta. 12 eta 16 urte arteko 17 kantari osatutako taldeak, berriz, *Bizirik gaudelako* eta *Aberriaren mugak*. Emanaldian gitarra,

baxua, teklatua eta zeharkako txirula izanen dute lagun.

Lakuntzako eskolako bi talde ere parte hartuko dute. 10 eta 11 urte arteko hamarrek batek Berri Txarrak *Ikusi arte* eta *Goazen* (bertsioa) abestuko dituzte gitarraz lagunduta. 11 eta 12 urteko hamaikakoak *Aldapeko* kantua eskainiko du. Grabazio baten eta gitarraren doinuak lagunduta ariko dira. Lakuntzako San Saastin musika eskolako 18 ikasleek osatutako talde bat ere kantari izanen da. Lourdes Iriondoren *Ez gaude konforme* abestuko dute. Teklatuaren, tronpeten eta txistuaren laguntzarekin ariko dira.

Aranotik 6 eta 14 urte arteko talde bat etorriko da Altsasun bi kantu eskaintzera: Lourdes Iriondoren *Laminak* eta Vendetaren *Ekainak 24*. Aurrenekoan gitarra akustikoaren laguntzaz ariko dira eta bigarrenaren hari batera gehituko zaio. Jaialdia Azpilikueta 15 urteko Enara Arregi bakarlariak despedituko du berak sortutako *Bada garaia* kantuarekin, pianoak lagunduta interpretatuko duena.

Gehiago

Berako eta Antsoaingo jaialdien ondoren Altsasuko hiru garrena izanen da. Martxoaren 24an, Oibarko Alvaro Aldunate entzutegian laugarren jaialdiaren txanda izanen da. Herri guztietako partaideak bilduko dituen jaialdi nagusia, berriz, apirilaren 21ean egiten dute Barañaingo auditorioan.



Imanol Etxarri eta Francis Irigoien, Urdiango euskara ikasleak. FRANCIS IRIGOIEN

“Euskara aberatsa dugu Urdiainen, merezi du”

Mank-eko Euskara Zerbitzuak Urdiango hizkera lantzeko ikastaro bat antolatu du. Bertan parte hartzen ari diren urdiaindarretako bi dira Francis Irigoien eta Imanol Etxarri. Euskaldun zaharrak dira biak, baina zabaldu egin nahi dute beren jakintza

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza URDIAIN

1 Zergatik eman duzue izena ikas-taroan?

Francis Irigoien: Urdingo eskueria mantentzeko, eta hikako hizkeria gogutzeko eta lantzeko. Eskua abeatsa duku hemen, eta ahaleina in ber da ez galtzeko.
Imanol Etxarri: Ne adineko gaztiok Urdingo eskueria ibiltzen

du, bea haurrak ez, ez takiei hemengo hizkera hitza iten. Pena haundia ematen dua. Nik ondo ikas nahi dot gio ondorenguei ber dan bekela yakusteko.

F.I.: Nik re seme-alabairi transmititu nahi diat. Etxien hemengo eskueria iten du gahienbat, bea seme-alabak ikastola faten dia eta halako nahasketa bat iten dai batuekin.

2 Orduan, hurrek batera jotzen dute, Urdiango hizkerara baino?

F.I.: Askok zuzenien erdez iten dai. Lastima.

I.E.: Ez inda re, hitza iten jakinko balai behintzat, haunditzienguei igual aldatuko likei jarria. Bea txikitati ez padakiei hemengo eskuraz hizketan eta ez padai ikasten, gio ezinko dai, nahi izanda re.

3 Zenbat pertsona ari zarete ikas-taroan parte hartzen?

F.I.: Normalien zortzin bat faten ga. Adin guztitako jendia, eta hoi oso ona da. Ni naiz zaharrena eta gaztenak 15 urte dukatzi.

4 Nolakoak izaten dira klaseak?

I.E.: Hasteko, gramatika pixkat ibiltzen du. Gio bideuek re patzen giau.

F.I.: Bideotan Urdingo adineko jendia atutzen da. Lehenoko kontuek kontatzen tuei, Urdingo eskuaz. Motzak bezain politak izaten dia.

5 Zer ikasi duzue orain arte?

F.I.: Hikan hizketan ahaleintzen ga. Jokuen bidez praktikatzen du. Gauzak ikasten gaitzan sensaziyua duku, hau da, klasiak baliagarriek zaizkigula.

I.E.: Urdinen bado ehiztari talde bat hikan iten dena. Hain artien hola iten dai, bea gainontzekuekin ez. Are gahio, ehiztari bati aitui dukat etxien, aitakin, ez tela hikan iten, bea basuen bai. Bitxia da. Dana ohitura kontua da. Eta polita litzake danok hikan iteko ohitura ibiltzia.

6 Hiztegia ere ariko zarete aberrastan.

F.I.: Bai. Hemen bade hitz bereziek. Adibidez, baserri munduen ibiltzen dianak. Gaztiek ez tuei hoiek ezautzen, ez tueilako sekula ibili. Jateko batzuk re beste izen bat hartzen dai: txindilak, kaixak, ailubiek.....

I.E.: Animaliaian kasuen re badia adibidiek: atxintanpurruek, kunkuna, uhaxa, imirrimaua, atxitamustaia (pinpinlmpausa)..

7 Baduzue mintzakide taldea sortzeko asmorik?

I.E.: Ez tu pensatu, bea batek daki. Guai Urdinen ohitura txiki bat sortu da, ostialeko poteuen txapelia yatekua. Igual, hurrengo batien hiketan hitza iteko ohitura sortuko da. Txapelia eta hika. Ez litzake txarra izanko.

8 Urdiango euskara ikasten zaila al da?

F.I.: Aditz batzuk ez tia errazak. Hikaz hitza itia kosta iten da, ohitueik ez gelako.

I.E.: Difentia da bea ahaleintze kontua da. Guai, hikan iten hasi naiz anaiekin eta lagun onaikin. Pixkanaka fan berra do. Espeo dot hemendik urte batia danokin hiketan itia.

9 Nolako irakaslea da Aitor Irigoien?

F.I.: Harritu in dua, oniako. Presona bekela bai, bea maisu bekela ez nen ezautzen, eta egia esan, gauzak oso ondo yakustenttu. Urte asko diatzi AEKn. Danok gaitza oso gustua beakin.

10 Guztira bederatzai saio izango dituzue. Kopuru egokia da?

I.E.: Luzera aldetik ondo dola uste dot. Segidan saio gahie inezkio, akaso nekagarria izanko litzake. In laike urtien bizpahiru alditan banatui.

F.I.: Hola da. Polita litzake hurrengo batien jende gahio animatzia. Meezi dau ikastaruek.

11 Altsasun ere bertako hizkera biziberritzeko asmotan dabiltza. Ari da zerbait gertatzen Burundun.

I.E.: Pozgarria da. Polita litzake herri guztitako hizkera bizik eta osasuntsu yotia. Jendia gogotsu dail. Iya lanien segitzen dun.

Bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
EUREKA ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUM MUSEOA:
SARRERA BANA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

beleixeguaixe

NOMEA: _____

AIZUA: _____

KODIA: _____

BERRIK

eureka!
 zientzia museoa
 KUTXA FUNDAZIOA

GAZTEZULO